



# ARGIA



## IRATI

### *Mitologia eta epika pantaila handian*

42-47. orrialdeak



***“Uztaritzeko serorekin,  
hainbat ikaskide  
suizidatu zen”***

14 | GABY ETCHEBARNE



***Euskal Herriko  
muralen  
ondare bizia***

24 | KULTURA



***Txikitatik elkarrizketa  
filosofikoa landuko  
bagenu eskolan?***

34 | MIREN CAMISON

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN** #282  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

ARGIA.EUS/LARRUN



ENERGIA BERRIZTAGARRIAK BAI  
BAINA NOLA?

MAHAI-INGURUA

**MIKEL OTERO**

EH BILDU, EUSKO LEGEBILTZARRA

**MIRENE BEGIRISTAIN**

EKONOMIALARIA

**JOKIN CASTAÑOS**

GOIENER

**AITZIBER SAROBE**

EKOLOGISTA

IRITZI ARTIKULUA: NICOLAS GOÑI ETA DAVID LANNES + SUSTRAI ERAKUNTZA

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: IRATI FILMA

## Iritziak

- 19 | IKER IRAOLA
- 20 | MALORES ETXEBERRIA
- 21 | INMA ERREA
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | AHOZTAR ZELAIETA

## Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
AINHOA LARRETxea
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO



### 42 | IRATI FILMAZ EGILEEKIN

Paul Urkijo zuzendaria, Edurne Azkarate pertsonaia nagusia eta Gorka Lazkano gidioia euskara zaharrera egokitu duena elkarrizketatu ditu Gorka Peñagarikanok. Besteak beste, jorratu dituzte euskal mitologiak egungo aktualitatearekin dituen loturak; filma euskaraz egitearen zentzua; aktoreen inplikazioa eta testua antzinako euskarara egokitze hartu dituzten hautuak.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Bioaniztasuna ez da babestuko planetaren %30 biztanlerik gabe utziz

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | GABY ETCHEBARNE

### “Borroka izan da ene bizia, toki guztietan injustiziak baitira”

Miel A. Elustondo

24 | ARTEA

### Horma biziak zentsura eta ahanzturaren gaineratik

Axier Lopez

31 | BIOANIZTASUNA | HARKAITZ-TXORIA

### Kolorea negu grisean

Iñaki Sanz Azkue

34 | HEZKUNTZA | MIREN CAMISON

### “Haurrek antzematen badute bilatzen dugula ondorio jakin batera iristea, benetan pentsatzen dutena gordeko dute agian”

Mikel Garcia

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa

S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Lehendakaria

Onintza Irureta

#### Erredakzioa

Maia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUIREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA





# Hau ez da

Irribarrerik ez da argazkian. Bost bat egunez azalean bizitakoa buruan betiko eramatea ez da xamurra. Ezkutuan egindakoari aurpegia ematea bezalaxe. Baina 5.379 bisaiak, izen abizenekin, erakusten dute garai hauetan onartzea nekezago egiten ei dena: hau ez da demokrazia. Beharrezko dutenean, aginte politiko eta ekonomikoan daudenen interesak zaintzeko biolentziari heltzeko erreparorik ez da. Aurreko garai "gatazkatsuetan" hala egin zuten sistematikoki eta orain hala egiten dute uniformedun sadiko horiei guztiei –izan toga, bata, plaka ala gorbata dun– zigorgabetasuna bermatuta. Irririk ez, torturaren karpeta urdinak aldean, Donostiako Intxaurrenondon larunbatean elkartu direnen artean. Ausardia bai ordea.

## MOTZEAN

Nafarroako sektore publikoko langileak grebara deitu dituzte otsailaren 15ean. ELA, LAB, CCOO, UGT eta Steilas sindikatuek lan-baldintzak hobetzea eta "benetako" negoziazioa eskatu dute.

Etxegabe bati su ematen ahalegindu da gizon bat Bilbon. Txabola batean egiten zuen lo pertsonak, eta hari su emanda erredura larriak eragin dizkio 45 urteko gizonetzkoak.

Donostiako Saretxe etxebizitza sindikatuak komunitateetan alokairu turistiko gehiago ezartzea debekatzeko gida aurkeztu du. Azaldu dute bizilagun komunitate batzuk jada ezarri dutela debekua.

3.000 euroko zigorra jarri dio GKSko kide bati Paueko auzitegiak, margoketak egitea leporatuta.

Espainiako bi polizia infiltraturen berri eman ostean, hirugarren baten kasua azaleratu du *Directa* aldizkari katalanak: bi urte eman ditu Valentziako aktibismoan infiltratuta.

Hilika jaio edo gutxira hildako umeei leku bat eskainiko die Hernaniko hilerriak, Euskal Herriko bigarrena.



## Milaka hildako Turkia, Kurdistan eta Sirian

**IRATI IRAZUSTA JAUREGI**

**A**stekari hau ixteko unean (urtarrilaren 13an) 38.905 hildako eta 85.000 zauritu zenbatu dituzte Turkian, Sirian eta Kurdistanen, Turkiako Gobernuak eta Osasunaren Mundu Erakundeak emandako datuen arabera. Mesopotamiako lurretako historia modernoan izandako lurrikara gogorrena jasan dute herritarrek eta mundu osoko herrialde ugari erreskatean laguntzeko taldeak bidali dituzte. Urtarrilaren 13ko datuen arabera, Turkian 29.605 pertsona hil dira gutxienez, eta Sirian 9.300. Diotenez, oraindik 150.000 pertsona egon daitezke eraitsitako eraikinen artean.

Lehen lurrikara urtarrilaren 6an Euskal Herrian 02:17ak zirenean gertatu zen. 7,8 gradukoa izan zen, eta Gaziantep hirian (Turkia) izan zuen epizentrotara, zazpi kilometroko sakoneran. Ondoren, hainbat erreplika izan zituen. Azken 25 urteetako astindurik gogorrena izan da, agintariak adierazi dutenez. Bigarren lurrikara bat ere izan zen, 7,5 gradukoa, Ameriketako Estatu Batuetako Geologia Zerbitzuak eta Kandilli Behatokia eta Lurrikarak Ikertzeko Institutuak jakinarazi dutenez. Egun berean, Euskal Herriko 11:24ean gertatu zen, Turkiako Kahramanmaraş probintzian.

### KRITIKAK ETA SALAKETAK

Kasko Zuriak erreskate-taldeak salatu du Siria ipar-mendebaldean ez dutela Nazio Batuko Erakundearen laguntzarik jaso. Martin Griffith NBEko buruzagi humanitarioak aitortu du erakundeak

"Siria ipar-mendebaldeko jendea huts egin" diola.

Oro har, Turkian gobernuak egiten ari den kudeaketa haserrea eragiten ari da. Gaziantep hiriko herritarrek salatu dute lurrikara gertatu eta 12 ordura, artean ez zela erreskate talderik iritsi bertara, laguntzera. Erdoganek telebistatik mehatxu egin die: "Eguna heltzen denean, gordetzen ari garen liburua irekiko dugu, kaos soziala eragiten saiatzen ari diren horiek identifikatu eta beharrezko erabakiak hartzeko. Gure fiskalak prest daude azkar mugitzeko".

Eragile kurduak ere salatu dute Turkiako Gobernuak ez zuela erreskate talderik bidali eta beraiek antolatu behar izan dutela autosalbamentua.

Bestale, Turkian 6.000 eraikinetik gora eraitsi dituzte lurrikarek, eta Fiskaltzak eraikuntzako arduragabekeriak ikertzeko unitate berezi bat jarri du abian. 113 atxilotze-agindu egin dituzte, Fuat Oktay Turkiako presidenteordeak jakinarazi duenez. Besteak beste, leporatzen diete etxebizitzetan lekua irabazteko zutabeak ez eraikitzea. Arkitektoen Eskolak salatu du eraikuntzako araudia ez betetzeagatik eta Gobernuak lizentziarik gabe eraikita etxeen aurrean ez-ikusiarrena egiteagatik hil direla horrenbeste herritar. Efe Emin Koramaz, Turkiako Arkitekto eta Ingeniarien Ganberen Batasuneko presidentek azaldu du Erdogan Gobernuan egon den 20 urteetan eraikin "arriskutsu, ustel eta ilegalen" zortzi legezkatze handi izan direla. ●

# Eta alderantziz



UXUE APAOLAZA LARREA

**M**adrili begira egotea ez da hemen jarrera txalotuegia izaten. Ni jartzen naiz noizean behin, nostalgia, han bizi izan nintzelako. Eta noizean behin, hango pauso hotsa honaino heltzen da. Aspaldi hartan plazak bete zirenean, meatzariei ongi etorria egiteko errepideak bete zirenean, osasun publikoaren alde dabiltzanean, hainbatetan. Pandemia garaian izan zen lehen arretaren alde bizkarra jarri zuenik, azaroan bertan kalera atera zenik... asteburu honetan berriro. Nazkatuta, zaurituta. Eta bizilaguna ibilian ikusten baduzu, hasi zu ere pausoa prestatzen.

Izan ere, hemen uste dute gauzak “ongi” egin dituztela, zailtasunak zailtasun; eta berriro irabaziz gero, “gaur egungo bide beretik” jarraitu nahi dute, “ekimen pribatuarekin eta hirugarren sektorearekin” (pribatuarekin eta pribatuarekin) “lankidetzan”. Madrilen bezala hori. “Autokonplazentzian erori” gabe, noski; pobreren bat hilko zaie, ziur, baina hori amortizatuta dago. Pobreak ez gaude kontzientziatuta bizitza osasungarria edukitzeko, barazki gutxi jaten dugu, eta gantz pila bat. Kirolak ez. Pandemian ere hor ibili ginen garraio publikoan pilatuta, musukoak sudurraren azpitik jarrita. Edan egiten dugu, eta erre, oso *demodé* gara. Oraindik ez gara sendabelarretan adituak, edo ez ditugu emozioak kontrolatzen, eta minbizi negartiak sortzen zaizkigu, ez ditugu unibertsoaren mezuak irakurtzen...

Bai, egia da, “ongi” egin dute. Ziur asko, irabazi egingo dute. Baina tira, jakin dezatela batzuek zientziaren aurrerapenak herriaren zerbitzura nahi ditugula, eta badakigula gure bizi-itxaropena lehen arretak markatzen duela, eta badakigula kendu egin nahi digutela, beste modu batera esanda, baina kendu, eta ahalegina ez dela gu mediku egitea, gurea den eskubidea aldarrikatzea baizik. Zuen “ongi”, gure “gaizki” da. Beraz, eta alderantziz. ●



ADUR

## Ustelkeria

Zazpi urteko kartzela zigorra eskatu du Fiskaltzak Aitor Santisteban EAJko Alonsotegiko alkate ohiarentzat. Dirua bidegabe erabiltzea eta faltsukeria egotzi dizkio. Bi milioi eurotik gorako dirulaguntzak jaso zituen bere legegaldian, hainbat obra-agiri faltsututa.

## Isunak

Eusko Jaurlaritzak eta EAeko 50.000 biztanletik gorako udalek adostu dute arma zuriak oker erabiltzeagatik ezartzen diren zigorrak gogortzea. Joan den astean sartu da indarrean araudi berria eta isunen zenbatekoak handitu dira: debekatutako arma bat eramateagatik, adibidez, 1.500 euro.

## Dantza

Uztaritzeko kaskaroten taldean emakumeek hartu dute parte estreinakoz, Baionan lehenik, Uztaritzen gero. Uztaritzeko Izartxo dantza taldeko kideak ateratzen dira kaskarotetan. Taldea emakume zein gizonek osatzen dute, baina orain arte inauterietan gizonek baino ez zuten dantza egiten.

## 2

emanaldi baino ez dira euskaraz izango, Donostian martxoaren 13tik 16ra egingo duten DFeria Arte Eszenikoen Nazioarteko Jaialdian. Guztira 40 emanaldi eskainiko dituzte, 14 testurik gabeak eta 24 gaztelaniaz.

## 1

Karrera bakarra eta 2.000 ikasgai egin daitezke euskaraz gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Euskalerrria Irratian elkarriketatu dituzten hainbat eragilek eman du datua.

## 584 milioi

ikasle daude ez urik ez saneamendu-instalaziorik ez duten ikastetxeetan, horietatik %40 Saharaz hegoaldeko Afrikan. Munduko eskolen herena dago egoera horretan.

## ANALISIA



## Oroimena, urratsak eta arriskuak

**URKO APAOLAZA AVILA**

**E**lkarrekin-Podemosek eta Eusko Jaurlaritzako bazkide diren EAJk eta PSEk akordioa lortu dute, Eusko Legebiltzarrean –gorabehera askorekin– tramitazioan dagoen Memoria Historikoaren Legea onartzeko. Elkarrekin-Podemoseko bozeramaile Miren Gorrotxategik eta Ezker Anitza-IUko parlamentari Jon Hernándezek prentsaurrean azaldu dutenez, legeak erreparazio “integrala” aitortuko die biktimei: “Biktima guztiei, ez bakarrik hildakoei”, azaldu du Gorrotxategik.

Horrela, lehen “kanpoan” geratzen ziren diktaduraren beste biziraule asko –zaurituak, errepresaliatuak, gerrilariak, emakumeak...– ere aitortuko ditu biktimen zentsuak. Gainera, dagokienean, indemnizazioak jasotzeko bermea izango dute biktima horiek, ez baitira aurrekontuei lotuta egongo. Hernándezen arabera, Europako araudia aintzat hartuko du lege berriak –gizateriaren aurkako krimenek ez dutela preskribitzen dio honek–, eta diktaduran ezarritako kondenak bertan behera uzteko neurriak jarriko dira. Beste hainbat gauza ere jasotzen ditu akordioak: emakume izate hutsagatik erreprimitu zituztenen aldeko politikak bultzatzeko artikulua propio bat, memoria elkarten parte-hartze handiagoa... Aldaketa horiekin, “justizia gehiagodun” memoria egongo dela esan du Gorrotxategik.

Aitortza “moraletik” harago doazen urratsak ematen joatea beti da onuragarria, oroimen historikoaren arloan erreparazio osoa lortzeko. Zentzu horretan, itzalpean geratu diren biktimak –kasu askotan emakumeak– zentsu ofizial batean jartzea ere ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Baina, Elkarrekin-Podemoseko ki-deek berek aitortu duten bezala, oraindik badaude hutsuneak. Hutsune handiak.

Alde batetik, indemnizazioak emateko orduan baremazio edo zehaztapen faltak ezerezean utz dezake atal hori –eta ez litzateke lehen aldia izango halako zerbait gertatzen dena–. Bestetik, lege autonomikoak, espainiar justiziaren eta 1977ko Amnistiaren Legearen horma gainditzeko modurik ez du oraingoz.

PP, C's eta Vox lehendik ere saiatu dira Gasteizen legea gerarazten. Eta eskuin muturrak prest du helegite metraileta frankismoaren krimenak zuzitzeko; ikusi besterik ez dago zein azkar eraman duen epaitegietara Espainiako Memoria Demokratikoaren Legea. Joan den astean, Auzitegi Konstituzionalak tramitera onartu du Vox-ek lege horren kontra jarritako helegitea, “espainiar batzuen oroimena nabarmendu eta beste batzuen baztertzen duelako”. Aurrekari horiekin, ezin esan Elkarrekin-Podemosen, EAJren eta PSEren arteko akordio honek paper errean amaitzeko arriskurik ez duenik. ●



# Estoldak



ULA IRURETAGOIENA

**H**irien hondakinak bildu eta txikitzen diren lekuetara bisitaldia egitea eskoletako derrigorrezko txangoa izan beharko litzateke. Gaileta paketetxo bat ireki barneko bi gaileta irensteko, eta pakete azalaren ibilbidea mentalki eraiki. Helmugan paratzen da giza aktibitatearen lotsaizuna. Kafe bero eramangarriaren bekatuen azken paisaia samingarria. Gure bizimoduak sortzen dituen hondakinek mugatzen dute hiriaren arrasto-mapa. Hegazti-espezieen presentzia gorozki eta lumek argitaratzen duten bezalaxe, giza espeziearen arrastoa lur azpiko hoditeriek, eraikuntzako adreilu edota plastiko zatiek salatzen dute. Hirietako periurbanora gerturatu besterik ez dugu egin behar, pipa poltsa bat erreka ertzeko adar batean ikurrin bilakaturik ikusteko: giza espeziearen kolonizazioaren irudikapen gisa balio beza. Oxala gure bizimoduaren hondakin-arrastoa hirien kanpoaldeko lurraldeetara mugatuko balitz. Ikusiak ditugu hirietatik urruti dauden hondakin-pilaketan irudi beldurgarriak, munduan zehar sakabanaturik.

Eta denok ikusi beharko genuke inoiz eraikin-eraişpen baten uea. Materialen suntsitze uean jaurtitzen den energiak inpresioa sorrarazten du; ikuskizunak lilura eta beldur arteko kilima bat eragiten du. Eraikinetan lanak egiten direnean, eraişpen uean batik bat, hondakinak tonaka sortzen dira. Arkitektura proiektu baten dokumentazio luzean antzu diren eranskin asko dauden arren, hondakinen kudeaketaren dokumentuak badu interesik, eraikuntzalanetako hondakinen atalkako sailkapenaren nondik norakoak zehazten dituenak. Etxeetako hondakinen gaikako sailkapenak sortzen duen aparteko antolaketa eta diru eta denbora eskakizuna dela eta, hondakinen banaketa ez dela beti behar bezalako kontuarekin egiten. Kontrara esan behar, eraişpeneko hondar materiala tabikeritza berrian berrerabiltzen hasi dela sormen bideak irekiaz, eraikuntzan materialen berrerabilpena eskasa bada ere. Bide luzea egiteke oraindik.

Zaldibarko zabortegiaren hondamendia goaon. ●



## Ehunka milaka, osasun sistema publikoaren defentsan

AXIER LOPEZ

**M**adril hiria munstro bat da. Milioika pertsona zementuz, deserrotzez, prekarietatez eta klasismoz inguratuta. Guztia dago salgai, publikoari gailentzen ari zaio pribatua eta jokaldia borobiltzeko, dena gero eta garestiagoa da, frankismoetik Espainian izan duten negoziaririk borobilenetik, etxebizitzatik, hasi eta langile auzoko tabernetako kañaren prezioraino. Madril neoliberalismoaren aurpegi gordinetako bat da, edo Ayusok mozorrotuko lukeen bezala; "sistema publiko-pribatuarena". "Ahal duena salba dadila" doktrina nagusitzen ari den garaiotan, osasun sistema publikoaren pixkanakako desintegrazioa da sintomarik argienetako bat. Hemen, azkar zahartzen ari den Euskal Herrian ere, zuzenean ezagutzen eta pairatzen hasiak garena.

Horren aurrean, igandean ehunka mila pertsona berriro antolatu dira Madrilgo kaleak gainezka egiteko. Greban dauden Lehen Mailako Arretako medikuei sostengua emateaz gain, ardura-dun politikoei eskatu diete osasun-sistema pribatizatzeari eta prekarizatzeari uzteko eta behingoz negoziatzera esertzeko. 70 kolektibo baino gehiagok babestu dute deialdia, eta milioi laurden buru baino gehiago batu, gobernuaren ordezkartzaren arabera, eta milioi bat antolatzaileen ustez. Madril ez da PPren feudo historiko bakarra igandean milaka pertsona batu dituen: 100.000 biztanle baino gutxiago dituen Galizako Santiagon 35.000 lagun Poliziaren ara-

bera kalera atera dira osasun publikoaren defentsan.

Madrilgo mugimenduaren ahots nabarmenetako batek, Fuenlabradako osasun-zentro bateko zuzendari Mar Noguerolek gogorarazi du milioi bat madrildar daudela medikurik gabe, tartean pediarrarik gabeko 200.000 haur. "Ospitalez kanpoko larrialdiak eta landa-eremuetako arretaren ekitatea ia desagertu dira, eta, gainera, arreta duina eta kalitatezkoa eskaintzeko zailtasunak egunetik egunera areagotzen ari dira". Madril da per capita osasunean gutxien inbertitzen duen erkidegoa Espainiako Estatuan, baita Lehen Mailako Arretara diru gutxien bideratzen duena ere, Osasun Publikoaren Defentsarako Federazioaren txostenaren arabera.

Noguerolek argi definitu du sistema publikoaren desintegrazio programatuaren korapiloa: "Kontsulten %20 medikurik gabe daude, belaunaldi-erreleborik ez dagoelako. Etengabe-ko exodoak gorpil zoroa eragiten du: egoiliarrek Madrilgo erkidegotik alde egiten dute gainkarga eta lan baldintza eskasengatik. Zenbat eta gainkarga handiagoa, orduan eta exodo handiagoa; zenbat eta exodo handiagoa, orduan eta gainkarga handiagoa. Hori dela eta, osasun publikoaren defentsan, tentsioari eusteko beharraz erabat jabetuta daudela azpimarratu du: "Borrokan aurrera jarraitzeko erabakia hartu dugu, ez dute erraza izango guri moralak jaisten". ●

# AEBek ezandarazi zituzten Nord Streameko gasoduktuak, Seymour Hersh kazetariaren arabera

 XABIER LETONA BITERI

**P**ulitzer kazetaritza sari ospetsua irabazia duen Seymour Hersh kazetari estatubatuarrek eman du albistea erreportaje luze eta sakonean, bere esanetan operazioa ondo ezagutzen duen iturri anonimo batean oinarrituta. Hartan azaltzen da nola AEBetan aspaldi ari ziren gasoduktuaren aurka egin nahian, eta nola bideratu zen irailaren 26an gasoduktua lehertu zuen operazioa.

Errusiatik Alemaniara gasa eramaten zuen Nord Stream 1eko gasoduktua 2010ean eraiki zuten bi herrialdeen artean, Errusiako gasarekin Alemania eta Europako beste herrialde batzuk gazez hornitzeko. Hamarkada batean herrialde biek gogotik atera diote etekina azpiegitura erraldoiari, gas hori Alemaniako ekonomiaren motorra izan baita, batetik, eta bestetik, gasaren etekinak Errusiako altxorra gogotik berotu du. 2018an hasi ziren Nord Stream 2ko lanak, baina oraindik indarrean sartu gabe zegoen, Errusiak Ukraina inbaditu ondoren Alemaniak ez erabiltzeko agindua eman zuelako.

Hershek azaltzen duenez, AEBek hasieratik ikusi zuten mehatxu gisa Nord Streameko gasoduktua, Alemania eta bere gainerako aliatu europarren Errusiarekiko menpekotasuna areagotuko baitzuen batetik, eta bestetik, AEBetatik urrutizko arriskua zegoelako. Hershek dioenez gain, AEBak sarritan izan dira horren kexu. Besteak beste, frackingaren ondorioz, AEBek bazuten gas ugari etxerako zein Europako herrialdeentzat.

Errusiako gas iturria itxi ondoren ikusi den moduan, ordea, europarrei itsasontzietan garraiatu behar den AEBetako gas likidoa Errusiakoa baino lau aldiz garestiago ateratzen zaie. Horrez gain, gasaren diruak Errusia aski indartzen zuen. AEBek, beraz, bazuten aski arrazoi Nord Streamaren aurka egiteko, eta

Joseph Biden Etxe Zurira iritsi zenean, haren aurka egiteko erabakia hartu zuen.

## ERABAKIA

Bederatzi hilabeteko eztabaida izan zuten AEBetako hainbat segurtasun elkarteren artean gasoduktuaren aurka nola egin zezaketen erabakitzeko. Operazio erabat sekretua izan behar zuen, inongo pistarik utziko ez zuena, bestela “gerra ekintzatzat” hartuko zelako, eta hori guttiz saihestu beharrekoa zen. “Kontua ez zen misioa egin behar zen ala ez erabakitzea –dio Hershek erreportajea–, baizik eta nola egin egileari buruz inongo pistarik utzi barik”.

**Dena prest zegoenean, Bidenek zalantza agertu zuen: ez ote zen nabarmenegia maniobrak bukatu eta bi egunera lehertzea gasoduktua?**

2022aren hasieran, operazioa prestatzen ari zen lantaldeak zera jakinarazi zion Etxe Zuriari: “Badugu oliobideak zartarazteko modua”. Eta otsailaren 7an jada, Biden lehendakariak hori gerta zitekeela jakinarazi zion publikoki Olaf Scholz kantzillerrari, harekin Etxe Zurian izandako bileran: “Errusiak Ukraina inbaditzen badu... ez da Nord Stream 2-rik izango. Amaiera jarriko diogu”.

Baina ez zen sekretupeko gaia: Hogei egun lehenago, Nulan idazkariordeak oinarritzeko antzeko mezua helarazi zuen Estatu Idazkaritzako bilera informatibo batean. Hedabide gutxi izan ziren hartan eta galdera bati erantzunez zera aipatu zuten: “Gaur oso argia izan nahi dut zue-

kin, Errusiak Ukraina inbaditzen badu, era batera ala bestera, Nord Stream 2k ez du aurrera jarraituko”.

## OPERAZIOA

Behin egingo zela erabakita, bakarrik falta zen noiz, non eta nola zehaztea. Erabaki zen Europako aliatu batzuek jakin behar zutela operazioaren berri, eta haietako batekin batera egingo zela operazioa, Norvegiarekin. Herrialde hori NATOren sortzaileetakoa zen, Errusiaren oso aurkakoa eta teknikoki ere prestakuntza handikoa halako operazio batean laguntzeko.

Norvegiak aholkatu zuen 2022ko NATOren Baltops maniobrak testuinguru segurua izango zirela Errusiak ez zezan operazioaren inongo susmorik izan. Maniobra horiek duela 21 urte egiten dira Itsaso Baltikoan eta era guztietako itsasontzi eta tresneria militarra erabiltzen dira bertan. AEBek beste estalpe bat ere eskaini zuten: AEBetako Seigarren Flota konbentzituko zuten maniobretan itsas-minak desaktibatuzko jarduera bat antolatuzko, Nord Streameko operazioa bideratzeko testuingurua izateko. Leherkariak tenporizadoreekin jarriko ziren, eta 48 ordura leherraraziko zituzten, dagoeneko maniobrak bukatu ondoren. Norvegiarren aholkuz, Danimarkako uretan zegoen Bornholm irlako uretan egingo zen eraso, han urak ez dira 80 metroko sakonerara iristen eta, gainera, uraren korrantea txikiagoa da.

## LEHERKETA

Dena prest zegoenean, ordea, Bidenek zalantza agertu zuen: ez ote zen nabarmenegia maniobrak bukatu eta bi egunera lehertzea gasoduktua? Etxe Zuriak leherkariak jarrita utzi nahi zituen, egoiki ikustean leherrarazteko. Posible zen hori? Operazio berez konplexua gehiago zailtzen zuen horrek, ez baitzekiten AE-



Joan den irailaren 26an lehertu zen Nord Streameko gasoduktoa. Irudi txikian, Seymour Hersh kazetaria.

Betako lehendakariaren agindua noiz eman zitekeen, bi astera edo hiru hilabetera, baina bai, posible zen.

Beraz, ekaineko gerra maniobretan leherkariak prest utzi zituzten eta irailaren 26an Norvegiako Itsas Armadako hegazkin batek haiek aktibatzen zuten ohiko zaintza lanak egiten zituenean. Lau gasbideetako hiru lehertu zituzten eta minutu gutxira gas metanoa itsas azalean zegoen, munduari hain ezagunak egin diren burbuila erraldoiak erakutsita.

### NOR IZAN ZEN?

Mendebaldeko hedabideek berehala zabaldu zuten ez hanka ez buru zuten hipotesia: Errusia izan da erasoaren egilea. Munduaren azken hamarkadetakoa geopolitika jarraitu duenarentzat, ostera, AEBak ziren susmagarri nagusi. Zein interes izan zezakeen Errusiak bere urrezko oiloa akabatzen? Batere ez. AEBek, aldiz, interes handiak zituzten gasoduktua gaintik kentzeko, eta operazioarako lagun gisa hartu zuen Norvegiak ere bai. Batak zein besteak saldu ahalko zieten gasa Alemaniari eta Europako gainerako herrialdeei. Baina, horrez gain, Alemania eta Errusia lotzen zituen zilbor-hestea energetikoa behin betiko hausten zen leherketarekin.

Hersh kazetari estatubatuarraren erreportajeaz azaltzen da iragan irailean Europako krisi energetikoaz Antony Blyken AEBetako Estatu idazkariari egindako galdera, eta hark nola erantzun zuen: "Aukera aparta da Errusiarekin menpekotasun energetikoarekin amaitzeko eta, beraz, Vladimir Putini bere asmo inperialtan aurrera egiteko duen energiaren arma kentzeko. Hori oso garrantzitsua da eta aukera estrategiko asko zabaltzen ditu datozen urteetarako".

### ERRUSIAK NAZIOARTEKO IKERKETA ESKATU DU

Gaiaz galdetuta, Etxe Zuriko eta Norvegiako agintariek erreportajeaz agertzen den guztia ukatu dute. Aldiz, Errusiako Estatuko Dumaren –legebiltzarreko behe ganbara– presidente Viacheslav Volodinek ikerketa eskatu du, Washingtonek Nord Stream gasbideetan lehergailuak jarri zituela dioen Hersh kazetariaren informazioa ikertzeko.

"Argitaraturiko gertaerak nazioarteko ikerketa baten oinarri izan beharko lirake, Biden eta bere konplizeak Justiziaren aurrera eraman, eta eraso terroristak kaltetutako herrialdeei kalte-ordainak ordaindu", adierazi du Volodinek Telegram kontuko mezu batean, Europa Press-ek informatu duenez.



Volodinek sinesgarritasuna eman die informazio berri hauei. "NATOren babespean eta Norvegiaren laguntzarekin" egin dela uste du presidentek. Are gehiago, estrategia horrek Alemaniako Hirugarren Reich-a "gogorarazten" diola esan du presidentek.

Halaber, Errusiako presidentek AEBtako presidente Joe Biden alderatu du presidente ohi Harri Trumanekin: "Truman kriminal bihurtu zen, zibilen aurkako arma atomikoak erabili baitzuten Hiroshiman eta Nagasakin. Orain, Biden terrorista bihurtu da, bazkide estrategikoen energia-azpiegitura suntsitzea agindu baitzuen".

Etxe Zuriak salaketa gezurtatu du. "AEBak ez ziren sartu Nord Streamen leherketan", esan du Garron Garn Pentagonoaren bozeramaileak, jakinarazpen labur batean. ●

# BIOANIZTASUNA EZ DA BAITEZPADA BABESTUKO PLANETAREN %30 BIZTANLERIK GABE UTZIZ

2022ko abenduaren 19an izenpeturiko bioaniztasunari buruzko hitzarmena IPBES Bioaniztasunaren eta Zerbitzu Ekosistemikoen Gobernu Arteko Plataformak jauzi garrantzitsutzat jotzen du. Halere, kezka bat baino gehiago gelditzen dira hitzarmen honen atzeko eztabaidetan, honen aplikazio konkretuan eta orokorki honen oinarrian dagoen mundu ikuspegian. Inposaketa nabari izan da naturaren kontserbaziorako hainbat ekimenetan, nahiz eta zientziak frogatu duen gizakia eta bioaniztasuna bateragarriak direla.

 NICOLAS GOÑI

azko abenduaren 19an, planetaren azaleraren %30 babesteko hitzarmena izenpetu zuten munduko 190 estatuk, bioaniztasunari buruzko COP15 goi bileran. Helburu ausarta da, 1960ko hamarkadatik hona eremu babestuak planetaren %2tik %17ra igo direla kontuan harturik. 60 urtetan iragandako emendatze absolutu bera lortu nahi dute datozen zazpi urteetan soilik. Horrek bi zalantza pizten ditu. Bata, ea eremu berri horiek ofizialki babestuak izanik ere berdintsu ustiatuak izaten jarraituko duten –klimari buruzko COP21aren hitzarmena bezala COP15arena ere ez delako hertsagarria, hots, aplikatzen ez bada ere ez dago zuzenketarik-. Bertzea, ea bertan bizi direnen iritziak alde batera utziz inposatuko zaien “babestutako eremu” estatutua.

Inposaketa eta iritziak bazter uztea, hain zuzen, hitzarmen horren negoziaketetan gertatu ziren: azken egunean, Afrikako oihan tropikal hezearen zati handiena dagokion Kongoko Errepublikak Demokratikoko delegatu batek bere kezka adierazi zuen, estatu garatuen finantza-laguntzarik gabe helburua ez baitzitzaion egingarria iduritzen. Erantzun gabe eta minutu gutiren ondotik, Txinako Ingurumen ministroak hitzarmena adostuta zela deklaratu zuen. Kamerungo delegatu batek bortxazko egoera salatu zuen eta Ugandako batek estatu kolpetzat jo zuen Txinaren joera.

Brasilgo eta Indonesiako delegatuen birtartez behin-behineko konponbide bat aurkitu zuten, eta Kongoko Errepublika Demokratikoko Ingurumen ministroak adierazi zuen COP16a arte negoziatzen jarraitzeko prest dela, eta espero duela bere ahotsa entzuna izatea. Adosturiko testuan, igurikatzen da gobernuek indigenen eskubideak errespetatuko dituztela. Horretarako estatuen arteko errespetu maila hori eredutzat hartzen bada, gaizki bideratuak gaude.

## GIZAKIA, BIOANIZTASUNAREN ETSAI?

Kolonialismo berdearen ikuspegitik, bioaniztasun handiko eremuak “babesteko”, bertan bizi direnak kanporatzen dira. Survival International gobernuz kanpoko erakundeko Marie Ndenga Hagbe bozeramaileak dioenez, autoktonoak eremu babestuetatik baztertzeak arrazoia tristeki ezaguna da: arrazakeria. Kolonien garaia formalki bukatuta ere, ikuspegi kolonialistak dirau: autoktono “primitiboen” ezagupenak “sineskeri hutsak” izanik, Mendebaldeko adituek baizik omen dute eremu horiek kudeatzeko konpetentzia. Ikuspegi horren arabera Amazonia oihana inoiz ukitu gabekoa zen, milaka urtez gizakirik edota kulturarik egon ez balitz bezala –azken hamarkadetakozur eta meatze ustiapena izan ezik-. CNRSko Stéphane Rostain arkeologoak aldiz kon-

trakoa frogatu du, xehetasun asko bilduz *La forêt vierge d'Amazonie n'existe pas* (“Amazoniako ukitu gabeko oihana ez da existitzen”) liburuan. Bertan erakutsi du nola modu oso finean eta milaka urtetan Amazoniako biztanleek beren ingurunea kudeatu, aberastu eta sendotu zuten. 86 landare espezie etxekotu zituzten, Amazonia osoan naza eta ubideen bidez landare gehiagorako baldintzak sortu, oihangintza teknika konplexuak garatu eta lurraren eman-kortasuna hobetu ere.

Hori dena ustiaketa baino interdependentzia ikuspegi batekin, Rostainen iritziak. 2018an *Nature* aldizkarian argitaratutako *The legacy of 4,500 years of polyculture agroforestry in the eastern Amazon* (“Amazonia ekialdeko agrosogintzaren polikulturaren 4.500 urteko ondarea”) ikerketak erakusten digu azken 4.500 urteetan zabaldu direla Amazonia osoan landare jangarriak, bertako biztanleek aktiboki landatuta. Oihana ere kudeatua zen, han hemenka belarkarak kultibatzeke eta suebakiak egiteko, lurraldearen gehiengoan oihan trinkoa atxikitzen zutelarik. Horren birtartez gizarte konplexuen garapenerako oinarri materiala bermatzen zuten.

Naturaren kontserbazio kontzeptu kolonial honen oinarrian uste sendo bat datza: gizakia ekosistemei kalte baizik ezin diela egin, eta ekosistemak osasuntsu atxiki nahi badira, Homo sapiens



### EKOSISTEMA ABERASTU DEZAKE

Alpujarrako mendietan, ubide sistema tradizionala, mendien lurpeko ur geruzak betetzeko eta bertako laborantza ahalbidetzeko. Era berean, ekosistema aberasten du antolaketa horrek.

kanpora (Homo turisticus izan ezik). Kontzeptu honetan, baita antropozeno nozioan ere, errealitate homogeenorean asimilatzen dira gizakia eta baliabideen ustiapen jasanezina, bereziki erregai fosilena. Naturaren kontserbazio kontzeptua aski berria da, industrializazioaren aldi berean garatu zen, nagusiki XX. mendean.

Banaketa honen muturreko adibide dugu Almeria probintziako El Ejido udalerria. Bertan batzen dira Punta Entinas-Sabinar natura erreserba –hainbat txori espezie eta landaredia autoktonoarekin–, eta “plastikozko itsasoa”, atzerriar prekarioen eskulan merkea baliatuz neguan Europan kontsumitutako barrazkien herena inguru ekoizten duena. Bioaniztasuna babesteko arau berriak

eskualdean bete nahi balira, imajina dezakegu iparrean dagoen Sierra Nevada parke nazionalaren handitzea –bazterreko hiruzpalau herrixka hustuz– eta horren ‘truke’ plastikozko itsasoaren garapena. Alde batetik inor bizi ez den turistentzako eremua, bertzaldetik langileen osasuna hondatzen duten ingurune kaltetuak, biak negozio gune.

Amesgaitz distopiko hori alde batera utzi eta oroitu dezagun eskualde hartan bertan, Alpujarran, garatu zituztela mendietan naza eta ubide sistema konplexuak VIII. mendean Ipar Afrikatik etorritakoek, aldapetan ura mantsoago isurtzeko, eta mendien lurpeko ur geruza betetzeko. Horri esker laborantza eredu bat garatu ez ezik, zuhaitz espezie aintz landatu zituzten horko maldetan

ere, bertako bioaniztasuna emendatuz. Gainera, CSICen *Water management in an ancestral irrigation system in southern Spain: a simulation analysis* (“Uraren kudeaketa Espainiako hegoaldeko arbasoen ureztatze-sisteman: simulazio-analisia”) ikerketaren arabera ubide tradizionalak gaurko ureztatze eredu baina eraginkarragoak dira.

Amazonia, Alpujarra eta bertze adibide askok erakusten digute posible dela gizakia bizi den lekuetan bioaniztasuna sendotzea, xumeki –jende arrunten biziraupenerako baizik ez zen– baina ekosistemen ulermen finak garatuz. Ikuspegi binarioak baino, gaurko bioaniztasunaren babeserako politikak bideratzeko eredu askoz aberatsagoak lirateke. ●

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f i

# Gaby Etchebarne

EMAZTEAREN BORROKA



## BORROKA IZAN DA ENE BIZIA, TOKI GUZTIETAN INJUSTIZIAK BAITIRA



Izkiriatzea maite izan du beti eta, horrekin batera, batean eta bestean ikusiak nahi zituen kontatu, ondoan izan duen jendearen hitzak gizarteari eman. Etchebarneren zenbait berri eman zigun Jenofa Berhokoirigoinek ARGIA n 2017an, baina iaz *Aldudetik Mundura* publikatu zuelarik, eta izugarrikeriak irakurri genizkiola, ezin gordean utzi.

 MIEL.A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

**Kontu ainitz eta historia diren istorio frango bildu dituzu *Aldudetik Mundura* liburuan. Batean ezti, bestean garratz. Zure garaian, dantzatzeko baimenik ez zenuten...**

Aldudeko bestak ziren agorrilean, eta beti baziren pilota partidak, bazkariak eta afariak, eta han ginen gu, denetan... baina ez dantzan, Mariaren haurrak baikinena! Dantzatzeko baimenik ez genuen. Debekua zen, eta ainitz sufritzen genuen horretaz. Orduan, aitaren herrira joaten ginen, Bazkazanera. Han ez genuen dantza bat ere huts egiten! Baina inork ez gintuen ikusi behar! Egun batez, hala ere, gu dantzan Bazkazanen, eta

Aldudeko emazte bat pasatu zen handik. Dantzan ikusi gintuen, eta gure bekatua kontatu zuen Alduden. Gure erretoreak jakin zuen, baina, beharrik, ez zuen kasurik egin, zeren erretorea bera ere ainitz sufritua baitzen, Alemanian preso egona kontzentrazio-esparru batean. Eta, horrela, segitu genuen Mariaren haurrak izaten eta dantzan, bieran!

**Aldudeko erretorea Alemanian preso egon zela erran duzu. Zuk zeure begiz ikusi zenituen alemanak herrian. Baduzu istorio hor ere.**

Gure aitak bazuen kamioneta ttipi bat, eta zenbait aldiz kontrabandoa erama-

ten zuen Baionara, edo handik Aldude-ra ekartzen zuen, eta gero Espainiara pasatzen. Alemanek kontrabandoa debekatua zuten, eta oroitzen naiz gau batez hamar bat gazte ere bazirela gure etxean, eta bazutela pakete bana, beste aldera pasatzeko. Ene ahizpa Andréek eta biok bagenuen gure egitekoa afera hartan. Bata joaten zen etxetik ehun metroa ezker aldera, eta bestea eskuinera, gau ilunean alemanik bazen ikusteko. Bazituzten larruzko bota azkar batzuk, eta urrunetik entzuten zen alemanak zirela. Eta, hola, entzun nuen bota haien arrabotsa! Lasterka itzuli nintzen etxera, errateko alemanak han zirela. Gazteek

Gaby  
Etchebarne


Aldudetik  
mundura

maiatz

maiatz

Aldudetik mundura

Gaby Etchebarne



# Gaby Etchebarne Urrutia

ALDUDE, 1932



Herrian ikasi eta gero, Uztaritzen segitu zuen ikasten, Gurutzearen alabetan, serora misiolari joan aurretik, Okzitaniako Muret herriko La Motte komentura. Urte beltzak, Gabyrentzat. Argentinan zen 1961ean, kongregazioaren eskolan, adimen urriko ikasleekin. 1971n Laosera destinatu zuten, herrialdean gerla zela. 1975ean utzi zion serora izateari, eta Tolosan (Okzitania) bizitzen jarririk, langile- eta gizarte-borrokari lotu zitzairen. Hainbat libururen egile da, eta iaz publikatu zuen *Aldudetik mundura* (Maiatz), lan lazgarria.

hartu karga eta joan ziren gure etxe gibeledu mendian gora. Baina orduan erauntsia hasi zuen, ihurtzuri eta tximista, eta ikusten genituen mutiko haiek mendian! “Galduek dira! Arrastatuko dituzte!”. Baina ez. Alemanak ere sartu ziren ostatu batean, eta ez zuten deus ikusi!

## Jenofa Berhokoirigoinek zuri egindako elkarrizketan jakin genuen serora joan zinela.

Moja, bai. Maite nuen ene tribua, baina ez nuen nahi bizimodu hura, Aldudetik urrun nahi nuen, kultura berriak ezagutu. Hala ere, ez nion familiari minik egin nahi, eta, orduan, hautu bat egin nuen: komentura sartu nintzen. Eta denak kontent. Banekien zenbait urtez sufrutuko nuela, baina azkenean ene nahia beteko nuela. Serora joateko egunean, 4:00etan utzi nuen etxea, Baigorriko autobusa hartzeko. Handik Baionara, eta gero Muret herriraino, Okzitaniar, Tolosa ondoan. Ni autobusera sartu, eta aita-amak han, negarra begian, baitzekiten ez zutela alaba bizi honetan berriz ikusiko, zeren misiolari-kongregazio bat hautatu bainuen, eta Asiara edo Latinoamerikara joaten ginen, berriz inoiz ez itzultzeko!

## Mureteko komentura sartu baino lehen, Uztaritzen izan zinen, pentsionista edo barneko ikasle.

Uztaritzen baziren Gurutzearen alabak deitu serorak, eta, egun batez, deliberatu zuten herri ttipi guzietan etxe baten galdegitea auzapezari, hiruzpalau serorarendako. Erretorea laguntzen zuten, meza prestatzen, kaximaren egiten... eta gure erizainak ere ziren. Kilometroak egiten zituzten baserrietara joateko, eguzki, elur edo euri egin! Jendeek maite zituzten, bai. Oroitzen naiz serora batez, euskalduna, ez zuen pasatzen egun bat Francoren kontra mintzatu gabe. Haren familiak gogotik sufrutu zuen, eta bazituen anaia batzuk preso Espainian.

## Uztaritzen zinen 1944an, kasik hamabi urte zenituela.

Aita-amek erran zidaten beka ukan nuela Uztaritzeko seroren eskolara joateko, laguntza handia izanen zela ene pentsioaren pagatzeko, eta joan

nintzen. Eta zer bizi Uztaritzeko etxe handi hartan! Ez genuen elkarren artean mintzatzeko baimenik ere, salbu errekreazio denboran! Hilabete guziz dutxa bat hartzen genuen, gure bazkariak eta afariak ez ziren aberatsak, larunbata guziz superiora kolegiara jiten zen gure noten entzutera, eta ez baziren onak gaitzespenak botatzen zituen denen aitzinean. Ahalgetuak ginen! Horrela pasatu nituen han sei urte, arrunt eneatua, ene hiru ahizpekin batera. Eta ikusi ditut han gauza izugarriak!

## Zer gauza, Gaby?

Gure eskolakoek garbitzen zuten arropa ibaian. Eta noiztenka, erraten genuen: “Pertsona bat erori da ibaira, eta hil da!”. Baina suizidioa zen! Ez nintzen orduan ohartu! Komentuan triste bizi ginen, serorek gaizto tratatzen gintuzten, ainitzek ez zuen jasaten, eta suizidatzen zen, bere burua ibaira botarik. Nik ez nekien suizidio zirela! Ene ahizpak erraten dit oraino: “Ez zinen ohartu suizidioak zirela?”. Eta ez, ez nintzen ohartu.

**Apezpikua arras gorritu zen. Ez zen besterik izan. Baina ezetz errateko indarra ez zuen serora gaztea, bortxatua zen!”**

**18 urte zenituela sartu zinen serora Mureteko komentura. Han ere bizia zinez gogorra zen, idatzia duzunez.**

Arrats guziz, ene gelan sartu eta negar egiten nuen. Hotzak hilak egoten ginen, eta goseak! Nik komentuan ezagutu nuen gosea. Egun batez, aita ikustera jin zitzaidan, eta erran zidan: “Zer ari zara hemen, Gaby? Ez zira uros, txauri berriz etxera!”. Hamar kilo galduek nituen! Jaikitzen ginen goizeko seietan, ez genuen bisaia garbitzen ahal, zeren ura hormatua baitzen! Joaten ginen kaperara oren bat eta erdi, meza eta otoitzendako. Gero, askaltzen genuen kafesnea –garagar-ehotu xorta bat, egiaz–, eta esnea ere kremaz gabetua, zeren krema atxiki behar zen gonbidatuendako, eta txakurarendako! Kontsolatzen nintzen, hala ere, pentsaturik bizimodu hura ere bukatuko zela eta munduko aberastasunak eza gutuko nituela!

## Komentuan, alemanen istorio berriz ere.

Gure superiorak komentuan gorderik atxiki zituen juduak eta erresisten-





tziako kideak. Egun batez, SSetakoak jin ziren jende haien bila. Gure superiorak sartzen ahal zirela erran zien, baina aintzin zerbait ikusi behar zutela. Eraman zituen haur ttipi batzuen ikustera: soldadu alemanen umeak ziren; amak, neska frantsesak! Superiorak hartu haur ttipi bat eta alemanen ofizialari eman zion, erranez: *“Made in Germany!”*. Soldaduak irriz hasi ziren, eta joan ziren. Nahasketa bitxi bat dugu denok, gaiztakeriaz eta onberatasunez, eta superiorak ere bazuen: ihesi zen jendea atxiki zuen komentuan, baina gurekin ez zen goxo.

**Komentu barneko bizia gaiztoa zen arestian erran duzunez. Sexugehiegikeriak ere hor dira maiz.**

Apezkek-eta egin dutena izugarria da. Haurrekin, eta serorekin. Ainitz emazte eta haur ezagutu ditut, haiek kontatuta dakit. Emazteok ez dugu hitz bat erraten ahal. Serora nintzela ohartu nintzen: gizonen obeditu behar genien, apezken zerbitzari izan! Apezkek egin dutena, erranen dizut: serora garaiko azken hiru urteetan superiora izan nintzen. Kongregazio barnean iraultza egin behar genuela pentsatu ge-

nuen, eta erran zidaten superiora nagusi izan behar nuela. Baldintza bat ezarri nuen, onartu zuten, eta baietz erran nuen.

**Eta superiora izan zinen.**

Eta urte batez munduko komunitate guzietara joan nintzen, superiora. Madagaskar, Hong Kong, India, Vietnam, Latinoamerika... Serorei erraten nien pobre bizi behar genuela, jendeak bezala lan egin, lan egitetik bizi. Toki batera joan, eta apezpikuarekin eta gisako jendearekin ere mintzatzen ginen. Egun batez, joan nintzen Hong Kongera, eta, han, apezpikuarekin mintzatu nintzen. Gela handi bat zen, eta bazuen kanape bat: *“Txauri, txauri, jarri hemen!”*, erran zidan. Jarri nintzen, eta ohartu nintzen ene ondora zetorrela, gero eta gehiago. Ene ondora heldu zelarrik, erran nion: *“Stop!”*.

**Eta?**

Apezpikua arras gorritu zen. Ez zen besterik izan. Baina ezetz errateko indarra ez zuen serora gaztea, bortxatua zen! Apezpikuak bortxatua zitekeen! Erraten dute Lourdeseko apezpikuen artean, hamaikak gisako gauzak egin zituztela. Nik

erraten dut hamaika baino ainitz gehiago direla. Ez dut frogarik, baina badakit apezkek gauza itsusiak egin zituztela, mutikoekin, eta serorekin! Haiek kontatu didate. Orain erraten dute aurkitu dituztela haurren hezurak komentuetako lurretan, apezkek serorei egin haurrak!

**Irlandako kasua-eta. 800 haurren hezurak aurkitu omen zituzten 2017an Irlandako komentu batean...**

Gauza ainitz dakit, emazteek kontaturik. Badut adiskide bat, gizona, erraten didana: *“Gaby, ez duzu dena kontatu behar, ez du balio”*. Gizon horrek bai, erraten ahal du nahi duena. Nik ez, emazteok ez?! Izugarria da! Orain, zenbait emazte hasi dira gauzak kontatzen, baina nik, kontatu nahi nuelarik, ezetz erraten zidaten. Kolertua naiz! Serorek gu tratatzeko moduz idatzi dut zenbait, eta igorri diot adiskide bati, eta hark ere ezetz: *“Gaby, idatzi duzuna izugarria da, baina uste dut inork ez duela publikatuko”*. Emazteek ahoa hertsu eta isilik behar dute Frantzian ere! Eta eni ere, horixe: *“Eman kasu, Gaby, ez duzu sobera mintzatu behar”*. Eta emazteak isilik beti!

### Izugarrikeriak komentu barnean, eta izugarrikeriak handik kanpo ere: Argentina.

Egun batez, erran zidaten behar nuela superioraren aitzinera joan. Ez nintzen lasai joan! Eta erran zidan: “Gabrielle, be-launiko!”. Eta gero: “Argentinako Moron herriko apezpikuak behar du serora bat katiximaren eraberritzeko eta adimen urriko haurren eskolatzeko. Heldu den urtean joanen zara, baina, lehenago, pedagogia berezi bat segitu beharko duzu Parisen urte batez”. Xoratu atera nintzen superioraren ganbaratik! Eta hala, joan nintzen Parisera, eta gero Moronera, Buenos Airestik 25 kilometrora. Zortzi urte La Motten [Muret] egina nintzen.

### 1961, beraz.

Orduko, Argentinak ukanak zituen gobernu militarrek, eta ukan zituen gero ere. Makurrena, Jorge Videla jeneralarena. Desagertu ziren 30.000 pertsona baino gehiago, gizon eta emazte, haur eta gazte ere. Bazituzten presondegi beldurgarriak, presoak torturatuak ziren... Erran nahi dut hango Polizia eta armadaren irakasleak frantses militarrek izan zirela, Aljeriako gerlan aintz ikasiak! 1978an ene bi adiskide preso hartu, torturatu eta hil zituzten: Cathy [Domon] eta Leonie [Duquet]. Ni orduan Tolosan [Okzitania] bizi nintzen. Ez dut ahanzten ahal. Egun batez, goizean goizik, ukan nuen deia telefonoan: “Cathy eta Leonie desagertu dira. Ez dakigu non diren”.

### Cathy eta Leonie desagertuak, betiko.

Cathy herri ttipi batetik egotzia izan zen. Perugorria zuen izena herriak! Hango peoiekin ari zen lanean, borrokan, baina nagusiak peoiak hobeki zaintzeko armadako gizon bat ezarri zuen, eta peoiei erran zien ez zirela Cathyrekin mintza-

tzen ahal, bestenez torturatuak izan zen zirela. Horrela heldu zen Cathy Buenos Airesera, pena handiarekin. Maiatzaren Plazako Amak ezagutu zituen, eta haien bilkura guzietan zen; Santa Cruz elizan, partikularki. Han hartu zuten Cathy beste hamar emazterekin, sartu zituzten Falcon auto famatuetera, eta ESMA [Armadaren Mekanika-Eskola, tortura-zen-troa] presondegira eraman.

### 1978an hartu zituzten atxilo zure adiskide biak, erran duzunez.

Cathy 1978ko abenduaren 8an hartu zuten. Leonie, bi egun geroago. Lekuko batzuek erranik dakigu hamar bat egunez torturatu zituztela ESMAn eta, gero, zenbait egunen buruan, itsasora bota zituztela hegazkin batetik... Cathy itsasoaren zolan gelditu zen betiko, baina Leonieren gorpua atzeman zuten hondartza batean, itsasoak lehorrera itzulia! Hilobi ttipi bat badu orain Santa Cruz elizaren baratzean, Maiatzaren Plazako Ama zenbaiten ondoan. Ene bi adiskideak hil zituztelarik, nahi izan nuen Argentinara joan eta Videlarekin mintzatu.

### Diktadoreekin mintzatzera heltzea ez da aise...

Baina guk ezagutzen baikenuen Videla! Bazuen haur bat trisomikoa, eta gure eskolan zen. Hala ezagutu dugu Videla. Cathy eta Leonie hilak zirela jakin genuelarik, atera genuen harrabots handia, nahi genuen hara joan. Bi egunean egin nuen pasaporte, behar genuen abokatu batekin joan, baina Argentinak ez zigun baimena eman, ez zigun utzi joaten.

### Argentinan, diktadura. Gero, Laosen izan zinelarik, gerla.

Atzerriko misioetakoak ginen, emazte sailekoak. Laoseko apezpikuak –Ezpletakoa zen, Urkia–, galdegin zuen


jendea, eta hara igorri gintuzten. Bazen gerla, bai, bonbak, errefuxiatuak... Gu jendearen bila ibiltzen ginen, aterpea emateko... Lehen aldia zen gerla ikusten genuela, ikusmina genuen, ez ginen kontziente, ez ginen izu ere. Gazte ginen, eta eroak!

### Noizbait, haatik, serora izateari utzi zenion, bizi zibila egiten hasi zinen 1975ean.


Liberazioa izan zen! Oroitzen naiz goiz hartan esnatu nintzela eta pentsatu nuela: “Libre, azkenean libre!”. Ez nuen deus ere, maleta ttipi bat baizik, baina kontent nintzen. Bagatelle kartierrean jarri nintzen bizitzen, arabiar aintz den tokian. Adiskideak egin nituen laster, baina lana ez nuen aise atzeman. Gero bai, egin nuen lan hotel batean eta beste toki batzuetan, erretretan sartu arte, eta beti borrokan. Hori izan da ene bizia, beti borroka, toki guztietan injustiziak baitira. Eta ibili naiz Jugoslavian, eta Palestinan, eta Parisen... borrokan. Uste genuen borrokarekin gauza aintz lortuko genuela, denetarako egiten genuen borroka, baina deus ez da kanbiatu.

### 91 urte beteko dituzu martxoan, zahartzeaz ere gogoeta egina zara...


Zahartzea da biziko sasoirik zailena. Lehenik, ez du balio kexatzea, jendeak ez baitu maite xaharra kexa izatea. “Xahar zara, eta utzi gu bakean!”, erraiteko maneran. Ez du balio gaizki zarela erraitea, beti behar duzu ontsa zarela. Zahartzeaz ez da erremediorik. Beti bada min, edo sabelean, edo bihotzean, edo hanketan... Beti min bada, gorputza gastatua da. Izkiriatu ditut bi testu berri, bata komentuko biziaz, bertzea da xahartzeaz. Nahi nuen horiek izkiriatu hil baino lehen, eta uste dut publikatuko direla aurtan berean... ●





**HIRITIK AT**  
Lurraldegintzarako koordinatu berriak



BDSkoop, IRUN | Wikitoki, BILBO  
622609129 | hiritik-at@hiritik-at.eus  
www.hiritik-at.eus



**HIRIGINTZA**  
**TOKIKO GARAPENA**  
**AHOLKULARITZA**  
**ESTRATEGIKOA**



## Euskaraz ikasten jarraitu?

**U**nibertsitate mailako ikasketetan, geroz eta garrantzi handiagoa eskuratu dute masterrek. Bologna prozesua deitutakoaren ondotik, 2000ko hamarkadan, Europa mailako unibertsitate titulazioak elkarren artean parekatzeko asmoz, aldaketa handiei ekin zitzairen. Eztabaida eta borroka garrantzitsuak piztu ziren, eta oso gai desberdinak jarri ziren mahaiaren gainean: unibertsitatearen merkantilizazioa, gradu ikasketen devaluazioa, metodologia berrikuntzarako aukerak, ikasketen nazioartekotzea, eta abar. Kritika gogorrak, alde batetik, eta unibertsitateak ezinbesteko zuen eraldaketarako zirrikitua ikusten zutenak, bestetik. Prozesu haren ostean urte dezente igarota, esango nuke ikuspegi kritikoa errealistagoa izan zela. Hau da, irakurketa kritikoa lotura handiagoa izan du azkenean gertatu denarekin. Adibide bat: metodologia berritzeko oinarria omen zen ikasleentzako taldeak txikiagoak izatea, gutxitan gertatu da.

Aldaketa prozesu horren baitan ditugu masterren agerpena eta horiek gero eta garrantzitsuagoak izatea. Gaur egun, kasu askotan unibertsitateko graduen ia ezinbesteko osagarri bilakatu dira masterrak. Unibertsitateko titulazio berezituagoak dira, eta gradu ikasketak baino garestiagoak, bereziki unibertsitate pribatuen kasuan. Horietako askotan ikasketak online egiten direnez, unibertsitate mota horien eragina oso handia da Hego Euskal Herrian. Zentzu

**Euskaraz ikasten eta ikertzen segitzeak unibertsitatea are eta gehiago merkantilizatzeko joeren aurkako ekintza izaten jarraitzen du**

horretan, Hezkuntzaren Soziologiatik aspaldi azpimarratu bezala, ez da ahaztu behar hezkuntza sistemak desberdintasunak ere birsortzen dituela. Modu anibalentean egiten du hori, izan ere, hezkuntzak aurkakoa ere lor dezake aldi berean; adibidez, ikasle askorentzat eskola da maila sozialaz igotzeko aukera bakarrenetakoa.

Egoera horretan, maiz aipatu gabe geratzen da masterrak zein hizkuntzatan ikas daitezkeen. Unibertsitateko euskarazko irakaskuntzan azken hamarkadetan aurrerapenak eman badira ere (Euskal Herriko lurralde batzuetan besteetan baino gehiago), oraindik egoera ez dago normalizatuta, inondik inora. Masterren kasuan, ordea, egoera askoz okerragoa da, eta oharkabean pa-



**IKER IRAOLA ARRETXE**  
EHU-KO IRAKASLEA

satzen dela iruditzen zait. Oso master gutxi ditugu Euskal Herrian euskaraz egin daitezkeenak, eta gainera, zaila da, merkatuaren logikari soilik jarraituz gero, master horiek aurrera egin dezaten lortzea.


Egoera bitxi baten aurrean gaude, beraz. Alde batetik, ikasleek geroz eta gehiagotan gradu ikasketak egiteko euskal adarra aukeratzen dute, baina, bestetik, bide hori ia guztiz moztu da graduondoko ikasketetara iristen direnean. Ikasketok, lan munduarekin lotura zuzena izateaz gain, ezinbesteko bidea dira doktoregorako, hau da, ikerketarako. Hortaz, euskaraz garatzen den ikerketa garrantzitsua dela uste badugu, ikasleek graduondoko ikasketak euskaraz egiteko aukera izatea lehentasunezko gaia izan beharko litzatekeela uste dut.

Hasierako auzira itzuliz, masterren eskaintzak merkatuaren logika hutsoaren pean uzten badira, ikasle ugari haiekin kanporatuak izaten jarraituko dute, batetik, eta euskarazko masterrek bizirauteko zailtasun erraldoiak izango dituzte, bestetik. Beste logika bat kontuan hartzea ezinbestekoa da gradu osteko ikasketei buruz pentsatzeko ere; eta ikasketen hizkuntzaz aritzerakoan, ikasketa hauek ere kontuan hartzea. Bitartean, euskaraz ikasten eta ikertzen segitzeak unibertsitatea are eta gehiago merkantilizatzeko joeren aurkako ekintza izaten jarraitzen duela gogoratzeari ez zaigu gaizki etorriko. ●

# Beti baitago norbait euskaraz ez dakiena



MALORES ETXEBERRIA



PAULA ESTÉVEZ

**B**i esperientzia linguistiko oso desberdin bizi izan ditut azken asteotan Hegoaldeko bi herritan. Bata, herri euskaldun bateko erakunde publiko batek antolatutako hitzaldi batean, eta, bestea, eskola bateko batzar batean. Hitzaldian baginen 80 lagunetik gora, nik esango nuke %90 euskalduna edo euskaraz ulertzen duena zela; baten aurkezle bat, euskalduna hori ere, eta hizlariak katalan hiztunak ziren. Jakina zen hitzaldia ez zela euskaraz izango, baina espero ez nuena zen aurkezpena ele bietan izatea, gaztelaniaz askoz gehiago euskaraz baino.

Aipatu dudan batzarrean, berriz, 40 bat lagun inguru ginen, horietako mordoxka bat euskaraz ulertzen ez zutenak, eta batzarra oso-osorik euskaraz egin zen, aldi bereko itzulpena, gaztelaniara, eskainiz. Mugikor bidezko aplikazio bat erabiliz egin zuen batzarkide batek itzulpena.

Badira hamabost bat urte aldi bereko itzulpena egiteko tresna oso sinplea, eramangarria, erabiltzen ikusi nuela Itsasuko hitzaldi batean. Harrituta geratu nintzen haren sinpletasunaz. Ezagunak nituen aldi bereko itzulpenak, aspalditik erabiltzen ziren hainbat udaletako bilkuretan edota jardunaldi ospetsuetan, baina beti ziren tresneria konplexuak, eta, noski, garestiak.

Lapurdiko tresna, hitzaldia antolatzen zuen baserritar talde euskaltzaleak prestatua, maleta txiki bat zen, erabilerraza. Aukera ezin hobea iruditu zitzaidan gurera ekartzeko ere.

Nahikoa da udalak edo baliabide ekonomikoak dituen komunitate batek horrelako tramankulu bat erostea (ez dira garestiak) eta herritarrei doan eskaintzea ekimenak euskaraz bideratzeko. Eta, maletarik ezean, telefono mugikorrak erabiliz ere posible da.

Ikusgarria da zenbateko abantailak dituen. Hasteko, komunitate edo herri horrek euskara lehentasunezko hizkuntzatat duela adierazten dio euskaraz ulertzen ez duenari, eta, ondorioz, garrantzitsua dela ikastea; ikasteko eta ikasitakoa praktikatzeko eremu natural bat ere eskaintzen dio, ulermen maila hobetzeko; denbora aurreztea da beste abantaila praktikoetako bat, ele bietako bilerak nola luzatzen diren eta zein aspergarriak eta absurdoak bihurtzen diren jakinda; askoz ere erosoagoa da denentzat, nahiz eta tokatu zaidan ikustea zenbait pertsona deseroso sentitzen dela denen aurrean entzungailua jarri beharrik (ez zaigu gustatzen bestea baino gutxiago garela adieraztea). Baina, behingoagatik ez dago gaizki deserosotasuna hizkuntza hegemonikoan aise dabilenak sentitzea, ezta? Eta txun-

digarriena da ikustea ulermen mailan, gutxienez, aurrera egin den eremuetan (eta asko dira Euskal Herrian zehar), zein jende gutxik behar izaten duen entzungailua, eta, beraz, zenbat aukera galtzen ditugun ekimen horiek guztiak gaztelaniaz edo, onenean, ele bietan edo sasi-ele bietan eginda.

Norbaitek esan dezake traba batzuk ere badituela, esaterako, itzultzaile bat jarri behar izatea. Ba bai, oraindik ez dut uste asmatu denik aldi bereko itzulpena itzultzailerik gabe egiteko teknologiarik (agian ez dabil urruti), baina jende asko dago gurean, profesional bezain gaitasunarekin edo batzar bat euskaratik gaztelaniara itzultzeko gai dena. Garestia ere badela aipatuko du norbaitek. Bai, izan daiteke, baina oraingoan ez da euskaldun pelma horiei itzulpena jarri behar zaielako, baizik eta euskaraz bizi nahi duen komunitate batean batzuek euskaraz ez ulertzea delako desabantailak eragiten dituenak. Izan ere, nork sortzen du gastua, bi hizkuntza dakizkienak ala bietako bat ulertzen ez duenak?

Eta hala eta guztiz ere, nolatan kostatzen ari zaigu hainbeste bilera, batzar, ekitaldi eta gainerakoak euskaraz antolatzea? Zergatik diogu euskara hutssezkoari halako erreparoa? Zerk belhurtzen gaitu? ●

## Mundu zikina



INMA ERREA CLEIX  
IDAZLEA EDO

**K**ostata onartzen dugu, baina mundu zikin batean bizi gara. Pantailetan mundu garbi samarrak ikusten ditugu –eta ikusi nahi ditugu, halakoetara ohituta–, film historikoetan, koroak eta jantzi dotoreak ia beti daude aratz eta distiratsu, narrazio beltzetan erakusten diguten gai zikinena odola da eta istorio fantastikoetan ikusgarritasunak ezkututzen ditu balizko lizunak. Egia da horietan guztietan badela itxura zikin-neko jendea, baina pertsonaia *satsuen* kuotak jende txiroa eta gaiztoa irudikatzen baliatzen dira gehienetan. Eta iragarkietan, nekez ikus daiteke zer bait edo nor bait zikin (ez bada garbitzeko gailu edo produktu bat saltzeko).

Hala ere, guztiok dakigu gure egunerokoa ez dela pantailetan bezain txukuna, pantailetakoa xahutasuna imitatzen saiatuta ere.

Egia da, bestalde, albistegietan bestelako *zikinkeriak* erakusten dizkigutela –segur aski gure beldurrak fresko eta mardul irauarazteko–: gerrak, bortizkeria, goseteak, hondamendiak... Baina halakoak ez ditugu sailkatzen zikinkeria gisa gure burmuinetan, besteak beste, ezin ditugulako ukitu eta ez gaituztelako ukitzen –etxean sortzen den hautsa edo bestelako zikingarriak ez bezala–.

Oraindik *Hondamendia* ikusi izanaren eraginpean –non estetika, edukiarekin

bat eginik, garbiki zikina baita, ikusleak deseroso sentiarazteraino–, hasi naiz pentsatzen zikintasuna zer den. Eta ohartu naiz zaila dela konklusio argiak ateratzea.

Susmoa dut, ordea, zikin, nazkagarri, jotzen ditugula gizakien eta oro har izaki bizidunen oinarriko beharrei lotutako materia organikoak –adibidez, gorpuztaren ziloei darizkien substantziak–, eta ez zaizkigula hain higuigarri egiten guk sortutako hondakin gero eta sofistikatuagoak, gure bistatik aparte utziz gero behinik behin –adibidez, zaborte-gietan–.

Batzuetan, arteak eta artistek –bati bat ikuskizun handien zirkuituetatik aparte ari direnek– asmatzen dute erakusten jende eta jendartearen tatzak. Behin kontatu zidaten: artista plastiko batek, ez dut gogoan nork, sardina fresko zilarkarekin osatu zuen svastika erraldoi bat erakusketa batean –non usaina gero eta jasanezinago bilakatu baitzen sardinek freskotasuna galdu ahala–.

Axuten *Hondamendia* antzezlanari antzeko ahalmena ikusi diot gure kontzientziak iratzartzeko. Zaldibarko zarama-hondamendia du abiapuntu, baina harago doa, hedabideetan, gizarte- eta botere-egituretan eta giza-harremantetan pilatzen dugun zakarra gure aitzinean paratuta. ●

## Norbera eskubide



EDU ZELAIETA ANTA  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

**D**elacroix-en *La Liberté guidant le peuple* (*Askatasuna, herriaren gidari*) koadroa ageri da giza eskubideen sarreran, Euskarazko Wikipedian. Ederki ekarria dago, nire iritziko, pintorearen irudi erromantikoa: askatasunarekin estuki lotuak dira giza eskubideak. Alabaina, askatasuna zer den ziklikoki galdetu beharreko auzia iruditzen zait. Sasoi orotan.

Gaur den egunean, adibidez, ez dakit libertatea herriaren gidari ote den. Duda handiak ditut. Diskurtso-praktika garai-kideak ikusita, beharbada hobe genuke esatea libertatea norbanakoaren gidari dela; are eta gehiago, norbera dela liber-

tatearen gidari. Hartara, zenbait aldarrikapen lekuko, norbera da gako askatasunaren eta, ondorioz, eskubide batzuen formulazioan.

Euskararen arloan ere badakusat arestiko kulturaren arrastorik. Alde batetik, hizkuntza ez ikasteko eskubidea aldarrikatzen dute zenbaitzuek, harro eta ozenki. Beste alde batetik, hizkuntzaren erabilera askea aldarrikatzen dute beste batzuek: egoera soziala edozein dela ere, etxeko/herriko euskararen aritzeko eskubidea. Utikan besteak, euskararen herria edota komunikazio gaitasunak! Utikan, funtsean, *modu naturalean* –ahaleginik gabe– norberari eman ez zaiona! ●

# Osakidetzako intxaurrak, gerturatu eta lau



AHOZTAR ZELAIETA  
KAZETARIA

Lehendakariak, gabonetako telebista-mezuan, Osakidetzan arazoak eta zailtasunak zeudela onartu zuen, eta otsailaren 1ean, Muruetako osasun-zentroaren inaugurazioan, lehen mailako arretan gabeziak zeudela. Iaz, EAJko pertsona batzuei lotutako enpresek Osakidetzaren mandatuak jaso zuten lehen mailako arreta "berrantolatu" eta "berriizteko", LKS eta Teknei-k, hain zuzen.

Azken urteotako kritika eta greben aurrean, Osasun Sailak milioika euro gastatu ditu urtero komunikazio-kampainetan. Horietako asko EAJko pertsona batzuei lotutako agentzien eta hedabideen bidez kontratatu dira, kasuko, Mediasal eta Grupo Noticias.

EITBren albistegietan ezkutatutako propaganda instituzionalaren aurrean, Deustobarometroaren azken inkestak, 2022ko abenduaren argitaratutakoak, adierazten du osasunarekiko kezka dagoela eta Osakidetzaren batez besteko puntuazioa 5era jaitsi dela. Gainera, OSEKiren arabera –Euskal Herriko Unibertsitateko osasun eskubidearen aldeko ekimena– Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasungintzara bideratzen dituen baliabideei dagokienez, biztanle

Madrilgo koordinadorak aipatu du esperimientua ez dela berria, Osakidetzak aipatuta: "EAEn, ez dago kontratazioaren gaineko kontrol politikorik"

gehienek uste dute azken urteetan behera egin dutela.

OSEKiren artikulua batek dioen bezala, korrante neoliberalak Osasuna Zainduz Planean gauzatu zen 1990eko hamarkadaren hasieran. Osasuna Zainduz Plana Iñaki Azkuna Osasun sailburuak (1991-1999) eta Rafa Bengoa Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariak (1991-1995) sortu zuten. Urte batzuk geroago, osasun-zentroak inauguratu zituzten Bilbon, Azkuna hiriko

alkate gisa eta Bengoa Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu zela (2009-2012). Rafael Bengoa aholkularitza enpresa batean zuzendaria da orain, eta Madrilgo 12 de Octubre ospitalea bere bezeroetarikoa bat da.

Osasuna Zainduz planak defendatutako kontratazio eredua Madrilgo Erki-degoko Osasun Sistemaren martxan jarri nahi dute orain. Horren aurrean, Madrilgo osasunaren pribatizazioaren aurkako koordinadorak kritikatu du "diru publikoa enpresa pribatura ahalik eta arinen transferitzea" dakarrela, hau da, "Zuzenbide Publikoak kapital pribatuak altxor publikoaren erabilera gardena eta kontrolatua ziurtatzeko ezartzen dituen mekanismoak ezabatuz".

Madrilgo koordinadorak aipatu du esperimientua ez dela berria, Osakidetzak aipatuta: "Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, ez dago kontratazioaren gaineko kontrol politikorik, soilik Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, erakunde teknikoa baita, eta aurrekontu-legeak soilik gastuaren muga ezartzen baitu". ELA sindikatuaren ustez, Isabel Díaz Ayusok euskal oasiaren harribitxiaren eritmoari jarraitzen dio. ●

EuskarAbentura

espedizioa



2023

IZEN EMATE EPEA IREKITA!

www.euskarabentura.eus

---

**Babesleak**











**Laguntzaileak**












**Hedabide laguntzaileak**










# ATXEGA JAUREGIA

## JATETXEA

AITZAZARRA KALEA 1 USURBIL, GIPUZKOA  
943 37 11 50 · [www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)



1981, Bilboko Zorrotza auzoa.  
XABIER PEÑALVER

# Horma biziak

## zentsura eta ahanzturaren gaineratik

“Hedabideek isilarazten dutenaz mintzo dira hormak”, zioen erdaraz Barakaldoko mural batek 1990eko hamarkadan, hormairudien eta pintaketen zeregin nagusia azpimarratu nahian. Ahots anonimoak dira, horman idatzitako hitzetik mintzo direnak, espontaneoak gehienak, gai komunengatik inguruko aldarrikapen eta kritika zuzenak, garaian garaiko errealitatea aldatu nahiaren isla. Xabier Peñalver arkeologo eta idazleak ondu eta Euskal Memoria fundazioak argitaratu duen hamahirugarren lan monografikoak ekarpen baliotsua egin du Euskal Herrian zentsurak eta utzikeriak eraman duten ondare aldarrikatzaile hori “berreskuratzen” eta balioan jartzen. Egun ere, hormek hitz egiten baitute.

 AXIER LOPEZ

**X**abier Peñalverrek hamarkadak daramatza ondarearen defentsan murgilduta, baina beti ikerketarekin lotuta. Izan ere, bere ustez ondarea kontserbatzen ez bada, ez dago ikerketarik, ezta ezagutzarik ere. “Are gehiago hain oldarkorra den eta hainbeste suntsitzen duen gizarte honetan”. Peñalver ezaguna da arkeologian eta, azken bi hamarkadetan, batez ere Debako Praileaitzen defentsan nabarmendu da. Balio handiko kobazulo eta aztarnategi horiek mehatxupearan ditu Amenabar enpresaren harrobi batek.

Praileaitzen, arbasoen objektu eta informazio ugaria egoteaz gain, duela 18.000 urte baino gehiago egindako margo batzuek apaintzen dituzte paretak. Orditik asko aldatu gara, baina gizakiak pentsamenduak eta kezkek komunitatearekin partekatze behar bera izaten





2017, Boloniako Blu artista ezagunak Errekaleor auzo autogestionatuan margotu dituen muraletako bat.  
KAULDI IRIONDO



2017, Leizako Ateakaltz gaztetxean Lianek egindako murala, Guardia Zibilaren kuartela izandako eraikinean.  
XABIER PEÑALVER



2020. Donostiako Tabakalera aurrean Sahararen alde egindako murala.  
XABIER PEÑALVER



2000. XABIER PEÑALVER

jarraitzen du. Eta horretarako, lehen bezalaxe jendea elkartzen den tokia da lekurik onena: espazio publikoa, izan orduko leizeetako paretak ala egungo herriko plazako izkina bateko horma. Adierazteko nahia gudan dago, baina, tamalez, baita gustuko ez duguna ezabarazteko grina ere. “Muralak etorkizunean induskatu ezingo den ondarea dira, ez dira inongo artxibotan bilduko, zentsuragatik gehienetan eta denboraren poderioz besteetan, desagertzen direlako”. Hori da Xabier Peñalver *Euskal Herriko horma biziak* liburua egitera bultzatu duen motibazioa. 1981etik bere argazki-kamerekin dokumentatu dituen 4.000 bat horma-irudietatik 1.000 jaso ditu liburuan, Maite Marañon maketatzailearekin

elkarlanean. Grin horrek eraman du Euskal Herri osoan barrena ibiltzera azken lau hamarkadetan, hormarik horma argazkiak eginez, garaian garaiko aldarrikapenak islatzen dituen ondare anonimo hori jaso asmoz.

Muralak beti izan ditugu gure artean. Paisaiaren parte izan badira ere, Peñalverrek argi dio oso jende gutxiri bururatzen zitzaiola horiek dokumentatzea, argazki bat egitea. “Orain, pentsatu nahi dut, mural bat egiten denean, argazki batzuk egingo dizkiola inguruko jendeak, eta akaso turistaren batek ere bai, baina lehen ez zen horrela. Kamera ez zen poltsikoan eramaten, eta, aldean izanik ere, prentsako argazkilariek kasu, ez zituzten muralak jasotzen. Orain argazki asko egiten da, baina egin

ahala ezabatu egiten da. Ez dakit hortik zenbat geratuko den etorkizunean”.

Liburuaren hitzaurrean, Eugenio Etxebeste *Anttonek* dio bat-bateko adierazpen kritikoa nabarmen apaldu dela. Baieztapen gordin hori ez da harritzekoa gure espazio publikoari begira jartzen bagara. Kalean jabetza pribatuak ugaltu dira, zaintza-kamerez, polizienak zein pribatuak, josita daude bazterrak eta “hau edo beste egitea debekatuta” dagoela dioten seinaleek apaintzen dituzte plazak. Peñalverrek giro politikoarekin lotu du: “Batziek gatazka eta beste batzuek borroka deitzen dutenaren erritmoak aldatu dira, orain ez gaude konfrontazio-garai batean eta hori kalean islatzen da. Baina, hala ere, beste gai batzuk azaleratzen ari dira”.

1987, Irlandako estiloan Otxandioan egindako mural bat, Guardia Zibilak tiroz hil zuen Luzia Urigoitia Ajuria 'Lutxi' ETAko kidearen omenez.

XABIER PEÑALVER



1998, Oiartzun.  
XABIER PEÑALVER



1999, Ondarroa. XABIER PEÑALVER

## ESKUAK ETA BEGIRADAK ALDATUTA ERE, HORMAK BIZIRIK

Gizartea etengabe aldatzen da eta aldarrikapenak ere bai. Lehen hormek NATOren edo Lemoizko zentral nuklearraren aurkako edota amnistiaren aldeko mezuak jasotzen zituzten. Lehen bigarren mailan zeuden borrokek kalean leku gehiago hartu dute orain. Feminismoa horren isla ona da, Peñalverren arabera. “Emakumearen borroka, gainera, salbuespen bakarrenetakoa da, nahikoa errespetatzen delako. Boterearentzat zailagoa da haien mezuak zentsuratzea, eta hori, jakina, ez da kasualitatea, feministek egindako lan eta borroka esker-garen ondorio da”. 1936ko gerra eta oroimen historikoa ere azpimarratu ditu Peñalverrek: “Lehen Guernicak baka-

rrik margotzen ziren, besterik ez, baina azken urteotan memoria historikoari lotutako gauza asko eta askotarikoak margotu dira. Muralen gaiak gizartearekin batera aldatzen dira, nahiz eta gai batzuek, lau hamarkada geroago ere, presente jarraitzen duten, hala nola preso politikoak eta tortura”.

Street Art Cities plataformak urteroko munduko muralik onenak aukeratzen ditu. 2022ko hautagaien artean Euskal Herrian egindako hiru horma-irudi hautatu dituzte eta horietako batek, Ondarroan Lian muralgileak egindakoak, hirugarren saria eraman berri du. Begi bistakoa da muralen kantitatea jaitsi dela, baina kalitatean asko irabazi dela dio Peñalverrek. “Gaur egun mural izugarriak daude, artista profesionalak

muralen mundura sartu dira. Adibidez, Lianek gauza harrigarriak egiten ditu, Leitzako Guardia Zibilaren kuartela zen eraikinean edo Bilbo Zaharrean margotu dituenak kasu. Errekaleorreko etxeetan egindakoak, Irlandako estiloan, ikusgarriak dira. Gasteizen bertan, Martxoaren 3ko grebalariak hil zituzten lekutik gertu, San Frantzisko elizaren alboko eraikin bateko fatxadan egindakoa ere hunkigarria da. Gaur egun artistikoki oso mural onak egiten dira”.

Duela 30 edo 40 urte, auzoetan, marrazten eta margotzen ez zekien jendeak kalera atera eta murala egiten zuen. Tokian tokiko eskaerak eta kezkek gizarteratzea zen helburua, alde artistikoa gorabehera. 1981eko Sestaoko mural baten modukoak ziren, “eskola onak



2012, Zilbetiko basoa meatarritza proiektu baten mehatxupearan zela, Monte Alduide koordinatzailearen ekimenez egindako murala. XABIER PEÑALVER

orain” zioen arratoiz inguratutako eskola zahar baten marrazki sinplearen alboan. “Mural horiek garrantzi handia zuten, nahiz eta artistikoki apalak izan. Jendearengan eragina zuten, ez alde artistikoagatik, mezuagatik baizik, hori baita muralen alderik garrantzitsuena”. Horien artean badira, jakina, askoren memorian iltzatuta geratu diren batzuk, horietako asko Euskal Herriaren historiako une zehatz eta oso gogorre lotutakoak. Zentzu horretan, Peñalverrek gogoan ditu Joseba Arregi torturatuta hil ondoren egindako muralak. “Oso ondo iruditzen zaizkit orain leku batzuk edertzeko egiten diren muralak, ordaindupeko artistenak, baina horiek beste kontu bat dira. Alde estetikoak eta aldarrikatzaileak lotuta egon daitezke, baina

horma-irudien funtzioa ez da estetika hutsa”. Horregatik liburuan fokua jarri du muralen izaera erreibindikatzailan, eta ez soilik ikuspegi artistikoan.

17 gaitan antolatuta, mota guztietako muralak ageri dira liburuan, edukia, estiloa, kalitate artistikoa, formatua eta kokapen aldetik. Baina gehien-gehienek ezaugarri bera dute: argazkietan baino ez dira existitzen. “Euskal Herria ez da Irlanda bezalakoa, han, egin kontu, muralak zaharberritzeko taldeak ere badituzte, eta horma-irudiak erakargarri turistiko eta oroimen historikorako tresna bihurtu dituzte. Hemen, ordea, ez da ia ezer geratzen, berriak baino ez daukagu, orain margotzen ari direnak. Zorionez kalean margotzen jarraitzen da, eta gainera oso gauza indartsuak.

Baina aurreko guztia desagertu da”. Eta, jakina, zentsura da arrazoi nagusia.

### **ZEINEK EZARTZEN DITU ADIERAZPEN ASKATASUNAREN MUGAK?**

Gosea baino zaharragoa da galdera. Erantzun zailekoa, eta gainera, garaien arabera aldatzen dena, nagusiki herritarren mugimenduaren eta boterearen arteko indar harremanen arabera. Naomi Kleinek *No logo: Taking Aim at the Brand Bullies* liburu ezagunean azpimarratu zuenez, herritarren kale-adierazpena kriminalizatzen dutenean herri eta hirietako bizitzetan benetan publikoa dena kriminalizatzen ari dira. Izan ere, espazio publikoaren erabilera kontrolatu nahi dutenek, kalean egindako mural



2018, Gasteizko Martxoaren 3ko sarraskiaren oroimenez, Zaramaga auzoan, Javier Hernández Landazabal margolariak zuzenduta. XABIER PEÑALVER



2021, Etxarri Aranaz. XABIER PEÑALVER



1994, Erreterria. XABIER PEÑALVER

eta adierazpen grafiko oro jazartzen duten horiek beraiek, ez dute era berean jokatzeko helburua denean beren gustuko mezua zabaltzea edo toki publikoak publizitate-euskarri bihurtzea.

Peñalverrek onartzen du gai korapilatsua dela, baina "kalea guztiona bada, ardura-postua dutenek bermatu behar dute kalea guztiona izaten jarraitzea. Eta bai, politikoki zuzenak ez diren gauza batzuk ager daitezke, gatazka sortu eta ezabatu ala ez ebatzi beharrekoak. Baina gehiengo ez da hori. Erabakitzeko eskubideari, emakumeen eskubideei, Korrikari buruzko horma-irudiak... Oinarrizko aldarriak ezabarazten dituzte, alkateak esan duelako hemen ez dela ezer pintatzen, bere hitzak gainerakoenak baino gehiago balio duelakoan, be-

rak besteek baino boto gehiago lortu dituelako hauteskundeetan. Ez du zentzurik, eta gainera, uste dut jende gutxi defendatzen duela jarrera setatsu hori".

Zer da zikin eta zer garbi? Erantzun gaitza duen beste galdera bat, kontraesanak sortzen dituena, eta sarri, jarrera oso bitxiak. Joan den hamarkadan UPN-ren agindupeko Iruñean gertatutakoaz gogoratu da Peñalver. "Udala ez zen gai jendeak kalean jartzen zituen kartel guztiak kentzeko eta orduan kartelak margotzea erabaki zuen, pintura grisez zikintzea. Hala, afixa gehien jartzen ziren zonaldeetan udaleko petatxu grisez beteta geratzen ziren hormak. Edonola ere, udalak jarraitu zuen esaten kartelak zikinak zirela. Horrelako jarrerekin, nola ez geratu zur eta lur?"

Mezu jakin batzuk kaletik egotzi nahi dituenak bere esku dituen bitarteko guztiak erabili ohi ditu. Aspaldiko kontua da zentsurarena, baina, argi dago, azken bi hamarkadetan, sen kontrolatzaile hori areagotu eta zabaldu dela. "Okerrera joan da egoera, bai. Gaur egun, badirudi kalean zerbait margotzea bera aldarrikapena dela bere horretan". Horregatik, 2016 eta 2019 artean Zumaian gertatutakoa "ikusgarria" dela esan du Peñalverrek, Kalea Guztiona Daren ekin gogoan. "Herriko jendeak alde zaharreko horma txiki batean murala margotzen zuen bakoitzean, udal gobernuak pintura marroiarekin ezabatzen zuen sistematikoki. Jendeak berriro beste mural ezberdin bat margotu, eta udalak atzera ere hurrengo goizalderako eza-

batzen zuen. Eta horrela, 98 mural pintatu eta zentsuratu zituzten arte. Askotariko gaiak ziren, hala nola euskararen defentsa, La Manadaren kasuaren salaketa, pertsonaia literarioak, Guernica bat... Hango jendearen kemena goraiatzeko da. Ordu gutxiren buruan haien lana ezabatu izango zela jakinda ere, muralak margotzeari ez zioten utzi hiru urtez, kalean eta egun argiz, adierazpen askatasuna aldarrikatzeko asmoz”.

Zumaiakoaz gain, Peñalverrek beste kasu bat azpimarratu du zentsuraren zentzugabekeriaren ikono gisa: Alejandro Tapiak 1985ean Usurbilen egindako murala. Etxe bateko fatxadan egindako horma-irudia da. Pertsona anonimo batzuk azaltzen dira, hainbat aldarrikapekin eta ikurrina batekin, Herri Batasuna dioen pankarta baten atzean. 2009an, Patxi Lopezen gobernuaren aginduz, Ertzaintzak murala zentsuratu zuen, eta, horretarako Herri Batasuna esaldia eta jendearen aurpegiak estali zituen pintura grisez, zabar. “Pertsona horiek, komatxo artean, hil zituzten, ez zieten gorputza ezabatu, aurpegia kendu zieten, burua. Ikurrina ezabatzen ere saiatu ziren, baina norbaitek errieta egin zien esanez ea ikurrinak ere traba egiten ote zien”. Tapiak ez zuen horma-irudia lehengoratu nahi izan, eta, ordutik, modu baldarrean eta gorrotoz, zentsuratutako bertsioa dago horman ikusgai, plaka batekin lagunduta, muralaren zentzua eta haren aurkako zentsura azaltzen dituen.

“Mota horretako gauza asko gertatu dira eta gertatzen ari dira, eta bien bitartean mural eta pintada batzuk ehunka mila dolarretan saltzen dira arte-galerietan”, azpimarratu du Peñalverrek. Izan ere, “zentsurak, errepresioak bezala, ez du konplexurik, eta zentsoreek ez dute inoiz ikasten”. Horregatik, beharrezkoak dira Peñalverrek egiten duen inurri lanaren gisakoak. Behin margotutakoa gogoratzeko baino gehiago, guztioi gogorarazteko espazio publikoa aldarrikatzea dela modurik onena egun nagusi den bulkada debekuzale eta kontrolatzaileari aurre egiteko. Lehen bezala, orain ere, inorenak ez diren espazioak behar ditugulako, harremanetan jartzeko eta adierazteko. Areago saturazio mediaticoak bizi gaituen garaiotan. ●



98 mural margotu eta Udalak ezabatu ondoren, zentsura garaitu izana ospatzeko festa egin zuten 2019an Zumaiako Kalea Guztiona Dako kideek eta “adierazpen askatasunaren txokoa” berrizendatu zuten Alde Zaharreko etxarte hori. BITTOR HIDALGO



2018, M8ko grebaren harira Zumaiako mugimendu feministako kide batzuei Mozal Legea ezarri ziotela-eta, Kalea Guztiona Dak egindako murala. BITTOR HIDALGO



Alejandro Tapiaren murala gaur egun. USURBILGO UDALA

Hegaldi berezi batek deitu digu arreta itsas bazterreko labarren artean. Burua jaso eta tximeleta baten gisan igaro du begien aurrean dugun zeru-tartea. Negua da. Hegazti askok hegoaldera migratu du jada: bero bila. Badira, ordea, hotza maite dutenak ere. Horien artean, harkaitz-txoria: goi mendietako hegazti berezia. Begien aurrean izan dugu gure gozamenerako. Pirinioetako mendi gain elurtuak utzi eta behera egin du, Euskal Herriko harkaiztietara. Negu hotzak hotzegiak ez diren lekura. Arrakala artean elikatzen. Paisaia grisari kolore pixka bat jartzera.

 IÑAKI SANZ-AZKUE



## **HARKAITZ-TXORIA**

Kolorea  
negu grisean

kusi bezain pronto egin dugu oihu: "Harkaitz-txoria!". Ezusteko ederra. Ezustekoa, ez delako erraza ikusteko. Ezustekoa, itsas labarretan behatzea ez delako barrualdeko mendietan bezain ohikoa. Zortedun gara, zalantzarik gabe. Izan ere, harkaitz-txoria (*Tichodroma muraria*) goi mendietako hegaztia da. Hasi Europako mendietatik eta Himalaiaraino topa daiteke. Pirinioak, Alpeak... 2.000-3.000 metro artean ia beti. Ia beti diogu, neguan horietatik kanpo ere ikus daitekeelako. Izan ere, elurte eta hotz handien aurrean, bere elikagai diren zomorro jendea, artropodoak alegia, ez ditu aurkituko bertan. Hala, neguan goi mendietatik altuera baxuagoko eremuetara jaisten da. Beti harkaizti zabal eta arrakaladunetara. Euskal Herriko hainbat menditan ikus daiteke garai honetan, beraz. Negutik kanpo, erronkari haranean, Larra-Belagua inguruan baino ez dugu topatuko. Horretarako, alabaina, begiak ondo zabalik eduki behar. Izan ere, harkaitz

grisen artean, harkaitz-txoriak ere badaki ondo ezkututzen.

### HORMAN GORA ETA BEHERA

Bere izenak dioen moduan, harkaitz-txoria ikusteko pareta edo horma inguruak behatu beharko ditugu. Naturalak, gehienez. Harkaizti malkarrak, itsas labarrak edota, kasuren batzuetan, baita eraikuntzaren bat edo beste ere, aurrerago aipatuko dugun moduan.

Gainalde grisa duen txoria txikia da, 15,5-17 zentimetroko luzera eta 30-35 zentimetroko hego zabalera duena. Horiek itxiak dituenen, bizkarralde grisa kareharrizko hormen kolorearekin nahasi daiteke, gizakiaren behaketa zailduz. Harkaiztiak aztertzeke zailtasuna dela eta, bere habitatak edo bizilekuak ere ez du laguntzen hura aurkitzen. Hargatik, espezie hau ikertzea ez da erraza izaten eta bere kontserbazio egoera ezagutzeko datu falta ere nabarmendu izan da hainbat lanetan. Zenbat harkaitz-txori ibiliko ote dira Euskal Herrian neguan?

Harkaitz-txoriak ibilera bihurria izan ohi du harkaitzean gora eta beheara. Mugimendu azkarrekin, arrakalaz arrakala ibili ohi da jaki bila bere atzapar luzeek lagunduta. Horretarako, moko beltz, fin, luze eta okerra lagun izaten du, hura zulo txikietan sartu eta bertan ezkutatuta dauden zomorroak harrapatzeke. Batzuetan, baina, beste erremediorik ez eta... badu bere burua agerian uzten duen mugimendu bat ere: hegaldia. Izan ere, harkaitz-txoriak hegoak irekitzen dituenen, argia pizten da paisaia grisean, eta neguko kolore hotzen erdian, kolore gorri biziko bi hego zabaltzen ditu, orban zuriz ziprztinduriko ertz beltzekin batera. Eta hor, hegaztia ikusteko momentua poesia bihurtzen da gizakiaren begietara. Harkaitz-txoriaren hegaldiak tximeleta handi baten irudia gogoratuko baitigu neguaren muinean, eta gure begiek gozatu egingo dute animalia berezi hau ikusteko aukerarekin. Natura behatzea bera, gozamenerako momentua ere izan daitekeelako.



LUCIANOCASA (2015)

**NON.** Arbaiun eta Irunberriko arroiletan, Aiako Harriko Parke Naturalean, Aizkorri-Aratz inguruan, Urkiolan edota Gorbeia inguruko hormetan ikusten da maiz. Horiez gain, kostaldeko itsas labarren handitasunean ere ikusi izan da: Lekeitio, Getaria eta Jaizkibel inguruan, esaterako.





IMRAN SHAH (2017)

## KAREHARRIA MAITE, BAINA... BESTE HARRIEK ERE EZ KALTE

Neguaeren etorrerarekin, harkaitz-txoriak Euskal Herriko hainbat mendikate-tako harkaiztietan ikusten dira urtero-urtero. Banaka edo binaka, normalean, kanturik apenas egin gabe, isilik ibili ohi dira hormen eremu itzaltsuetan maiz, eta hura ikusteko aukerak gehiago murrizten dira. Harrizko pareta handien zuloetan begira ari dela, harkaiztiaren goialdea harrapatzen duenean hegaldi luze eta zuzen bat egiten du sarri hegoak itxiz eta harkaitz oinera jaitsiz, berriz ere behetik gora elikagai bila hasteko.

Ezagunak dira bere neguko eremu batzuk. Arbaiun eta Irunberriko arroi-letan, Aiako Harriko Parke Naturalean, Aizkorri-Aratz inguruan, Urkiolan edota Gorbeia inguruko hormetan ere ikusten da maiz. Horiez gain, alabaina, kostaldeko itsas labarren handitasunean ere ikusi izan da: Lekeitio, Getaria eta Jaizkibel inguruan, esaterako.

Hala ikusi genuen guk ere, hareharrizko harkaizti handi batetik bestera igarotzen, bi hego bereziak astinduz. Bi eremu malkarrak bereizten zituen bailara ireki batean ginen gu, itsasotik metro gutxira. Izan ere, kareharria eta barrualdeko harkaiztiak maiteago baditu ere, geologia eta eremu horietatik kanpo ere badira behaketak.

## AMERAUN-TXORIXA, FRAIDEEN LAGUN

Oñati inguruan ondo ezagutzen dute harkaitz-txoria. Bertako izena ere badu,

Ez da kasualitatea  
armiarmaren eta  
harkaitz-txoriaren  
arteko lotura: neguan,  
harkaiztietako  
zirrikitueta armiarma  
eta armiarma-sare  
bila ibiltzen da

inguruko adineko jendeari egin zaion hainbat elkarrizketetan jaso den moduan. Hala egin zuen Cándido Izaguirrek 1969an, *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes* (Aranzazu-Oñatiko eta inguruko euskal hiztegia) lanean: *Pareta-txorixa* edota *ameraun-txorixa* moduan ezagutzen da bertan. Lehenbiziko izenak, noski, ez du zalantzarako aukera askorik ematen. Bigarrenak, alabaina, armiarma-sarea edo amarauna eta hegaztia lotzen ditu. Zergatik, ordea?

Oñati inguruan ez ezik, beste herri batzuetan ere jaso izan dituzte Azkuek eta Telesforo Aranzadik antzeko izenak: *armiarmajale* eta *armiarmazale*, esaterako. Beste hizkuntza batzuetan ere txori hau eta armiarma lotu izan dira maiz

izena jartzeko garaian. Gaztelaniaz “*tre-parriscos*” izena duen arren, “*arañero*” moduan ere ezaguna da. Eta ez da kasualitatea, noski, armiarmaren eta harkaitz-txoriaren arteko lotura: neguan, bertan dauden armiarmak jateko asmoz, harkaiztietako zirrikitueta armiarma eta armiarma-sare bila ibiltzen dela jakina da. Bere jakiak eman dio, beraz, Oñatiko izena.

Oñatiarrek ezaguna dute, Araatz inguruko hormetara urtero egiten duelako bisita harkaitz-txoriak. Araatzeko paretetan ikusi ohi da negu partean, begi zorrotzak eta pazientzia duen jendearen gozamenerako. Bai harkaizti naturaletan, bai, batzuetan ere, horma artifizialetan.

Hala diote, behintzat, adituek. Pareta artifizialetan gora eta behera ikusi omen dute, non eta Arantzazuko Santutegiko elizako dorrean, baita inguruko eraikuntzetan ere. Zalantzarik ez dago, behintzat, elizako horma bereziak, bere piramide itxurako harriekin dorre arantzatsua sortzen duen tokian, emango diola horien arteko zirrikitueta miazteko aukera harkaitz-txoriari. Jakin nahiko nuke, bertako fraideek ezagutuko ote duten, edota Pello Zabala zenak sumatuko ote zuen neguko egunekin batera etortzen zela *ameraun-txorixa* haien Arantzazura, hotzaren iragarle moduan.

Oñatin ez ezik, Izaban ere ezaguna dute hegazti hau. Izan ere, neguan herrian bertan ikus daiteke harkaitz-txoria. Bertako izenik izango al du?

## HARKAIZTIAK ZAINTEKO BEHARRAZ

Ez dira gutxi Araatzeko hormetan urteren batean edo bestean harkaitz-txoria ikusi duten eskalatzailleak. Egia da, batetik, eskalatzeko garai onenak ez duela bat egiten hegazti honen presentziarekin, baina kontuan izan beharko litzateke, gutxienez eskalatzeko guneen kudeaketa egiten denean, harkaitz-txoria bertan egoteko aukera. Izan ere, ikusi da badirela tokiak non kirol hori praktikatzen den hormetako zirrikitu eta arrakalletako belarrak kentzen direnak. Horrek saihestu dezake artropodoak erakartzea, eta beraz, eragin dezake hegaztiarentzat jaki gutxiago egotea.

Kirola eta biodibertsitatea kontserbatze aldera, komenigarria litzateke bi arloen biziraupenerako neurri egokiak hartzea, etorkizunean ere, harkaiztien eszenatoki grisean, hego gorrien mugimenduaz gozatzen jarraitzeko aukera izan dezagun. ●

## Miren Camison

# “Haurrek antzematen badute bilatzen dugula ondorio jakin batera iristea, benetan pentsatzen dutena gordeko dute agian”



Zergatik ez landu eskolan elkarrizketa filosofikoa txikitatik, pentsatzen ikasteko, ideietan sakontzeko, edukiak kritikoki aztertzeko? Gogoetatzen nola i(ra)kaste den, galdera onak zeintzuk diren, iritzi “desegokien” aurrean zer egin... galdetu diogu Miren Camison filosofoari. Elkarrizketa filosofikoak gidatzeko abiapuntua ere eman digu: guk geuk ditugun aurreiritzi eta dogmak gaintetik kentzea, “geure burua berrikusten dugularik garbiago egongo garelako haur eta gazteekin filosofia jorratzeko”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  MIREN CAMISONEK UTZIAK

**M**iren Camison Mexikon bizi da, baina Filosofia Faktoriaren bidez tailer eta ikastaroak ematen ditu Euskal Herrian, online. Arizmendi kooperatibarekin elkarlanean, 8-10 urteko haurrei zuzendutako *Kio eta Gus* eleberri filosofikoa eta berau lantzeko irakasleentzako gidaliburua (*Mundua- ren aurrean harritzen*) euskaratuko dituzte, eta aitzakia horrekin egin diogu elkarrizketa.

### **Zein ezberdintasun dago haurrentzako eta helduentzako filosofiaren artean?**

Haur filosofia kokatu behar dugu lehenik: praktika filosofikoaren adar bat da. Urtetan teoria (akademia) eta praktika filosofikoa bereizita egon dira, eta duela 40 bat urtetik praktika filosofikoaren

baitan ugaritzen joan dira tailer filosofikoak, kafe filosofikoak, aholkularitza filosofikoa (psikologora joan ordez norbera autoezagutzeko prozesua egin dezakegu filosofo baten kontsultan) eta baita haur filosofia ere. Gaur egun, oro har hobesten dugu praktika eta teoria bereiziko ez dituen kultura filosofikoa, dualismo faltua delako, gizaki guztiok baitugu dimentsio filosofikoa, kontzienteago edo inkontzienteago, denok dugu mundu ikuskera bat, eta haurrak garenetik landu daiteke dimentsio hori, txikitatik espazioak sor daitezke hori lantzeko. Zein ezberdintasun dagoen haur eta helduen arteko filosofia praktikan? Bizi-esperientzia: helduok esperientzia gehiago dugu, batzuetan baita aurreiritzi eta ideia dogmatiko gehiago ere –ez baditugu horiek berrikusi–, eta haurrak

freskoago daude. Praktika filosofikoa egiteko baliabideak eta metodologiak adinaren arabera –edo zehatzago, garapen fasearen ezaugarrietara– egokitzen dira, baina funtsa ez da aldatzen.

### **Eta zein ezberdintasun dago haurrekin gaiak klase magistral baten bidez, proiektuen bidez... edo filosofikoki lantzearen artean?**

Eskolan nagusiki hiru eredu izan ditugu: eredu transmisionista (irakasleak azaltzen duena jasotzen du ikasleak), eredu konstruktibista (ikerketaren proiektuak, taldeka lan egitea... ikasitakoari zentzua bilatu diezaion ikasleak), eta orain hirugarren eredu bat daukagu praktika filosofiko edo dialogikoari lotuta, gelan pentsatzen ikasteko. Inportantea da lantzen diren edukiekin kritikoak izatea,



eta ez norbere kabuz, taldean baizik, elkarrizketaren bidez. Nire esperientzia da eredu tranmisionistarekin nekatuta bukatu nuela gaztetan; orain pentsatzen dut haurrek behar dutela eredu guztien arteko oreka eta armonia bat, baina helduok ez dugula asmatu horretan. Klase magistral batek janzten zaituen moduan, inportantea da edukien inguruan pentsatzeko eta elkarrizketarako espazioak izatea, doktrinamenduan ez erortzeko. Hezkuntza politikak mutur batetik bestera doaz sarri, eta begirada partzialak dira; ni ez naiz moda zalea: inportantea da edukiak memorizatzea, eta inportantea da eduki horiek modu kritikoan berrikustea.

**Pentsatzen eta gogoetatzen ere ikasten da, beraz.**

**“Gidariak ez du iritzirik ematen, galderen bidez azaleratzen ditu iluntasunean dauden beste ikuspegi batzuk, desmuntatzen ditu ideiak, edo sakontzen du horietan”**



Bai, gure barne-dimentsio bat da gogoe-ta egitea, txikitatik arrazoitzen dugu, baina haurrak direnetik horretarako espazio egokiak eman behar dizkiegu, muskulu hori lantzeko.

**Muskulu hori lantzeko modua galderak dira?**

Galderak dira elkarrizketa filosofikoaren zati bat, bestea erantzunak dira. Eta bai, galderak oso garrantzitsuak dira ideiei aurka egiten dieten heinean, ideiak problematizatzen dituzten heinean. Ideia batek oso sinplea irudi lezake, baina erresistentzia proba bat egiten badiogu, errefutazioaren bidez, galdera ziztagarrien bidez... sakonago pentsatzera eramango gaitu, ikuspegi ezberdinak azaleratzera, erantzun bakarra bilatu gabe. Eta bide interesgarria da, eredu tranmisionistak erantzun baka-rrean eraman ohi gaituelako.

**Lanketa kognitiboarekin lotu ohi dugu filosofia. Trebezia emozional eta sozialek ba al dute lekurik?**

Alde batetik arrazoia eta bestetik emozioak planteatu izan dira, baina badakigu gizaki integralak garela: pentsatzen dugunak emozionalitate bat darama. Matthew Lipman filosofoak dio pentsamenduak hiru dimentsio dituela: pentsamendu kritikoa, pentsamendu sortzailea eta pentsamendu ardurati edo arretatsua, alegia pentsamendu etikoa, enpatikoa, norbere eta besteen zaintza kontuan hartzen dituen... eta nik laugarren dimentsio bat nabarmenduko nuke: barnekotasuna, norbere burua hobeto ezagutzeko aukera ematen duelako elkarrizketa filosofikoak. Ez dugu bilatzen terapia egitea, baina batzuetan efektu terapeutikoa du, barnean gauza asko ukitzen dituelako.

### **Etika, orduan, filosofiaren parte da?**

Bai, elkarrizketa filosofikoak berez balio etiko batzuk aplikatzen ditu praktikan: besteak dioenarekiko apaltasuna eta errespetua, elkarrizketan parte hartzeko ausardia baina sobera ez hitz egitea, parte-hartzaileen arteko elkarlana... Elkarrizketa kooperatiboa da, ezagutza denon arteko gogoetekin eraikitzen goazelako, baina horrek ez du esan nahi ideia ezberdinak eta desakordioak ez daudenik, ideiak problematizatu behar ez direnik.

### **Matthew Lipman dago Kio eta Gus eleberri filosofikoaren atzean.**

3 urteetatik 18ra lantzeko curriculum zabalaz sortu zuten Lipmanek eta Ann M. Sharp-ek 1980-90eko hamarkadetan, AEBetan, eta gaur egun gero eta material filosofiko gehiago dugun arren, esango nuke jatorri horretako material zorrotzeta eta sakonena dela.

Lipmanek Vietnamgo gerra bizi izan zuen eta zera pentsatu zuen: ikastetxeetan txikitatik hasten bagara elkarrizketaren kultura bat sortzen, filosofiatik (alegia, ez arrazoia landuz bakarrik, etika eta zaintza horrekin batera doan argudiaketan baizik), helduak direnean gerra egoera batera iritsi aurretik jakingo dute gatazkei beste era batera aurre egiten. Hori izan zuen bulkada, filosofia jorratzen dituen gaiei heltzeko: egia eta gezurra, bizitza eta heriotza, justizia, estetika, identitatea... Horietan sakontzeko, eleberri filosofikoak sortu zituen, adinari edo garapen faseari egokituak; eleberrietako protagonistak haurrak dira, euren bizipenak eta solasaldiak jasotzen dira, eta amu asko ipintzen ditu Lipmanek, haur eta gazteen

**“Lipmanek Vietnamgo gerra bizi izan zuen eta zera pentsatu zuen: ikastetxeetan txikitatik hasten bagara elkarrizketaren kultura bat sortzen, filosofiatik, heldutan ez dira halakoetara iritsiko”**



**“Irakasle batek filosofia landu zuen Haur Hezkuntzan eta umeak Lehen Hezkuntzara pasa zirenean, irakasle berriak esan zion ezin zuela klaserik eman, haurrek galdera asko egiten zizkiotela”**



artean gogoeta sustatzeko. Horrez gain, eleberriak behar bezala lantzeko irakasleentzako gida-liburuak atera zituen, eta darabilen metodologiaren bihotza da elkarrizketa filosofikoa: galderak eta erantzunak nola egin. Zeren hori funtsezkoa da, baina niri, adibidez, Filosofia ikasi nuenean teoria baino ez zidaten irakatsi.

**Eta zein dira ba hurrekin filosofia gidatzeko gakoak? Galdera onak ardatz omen dira, baina zer da galdera onak egitea?**

Galdera eta erantzun, biek behar dute zorrotzetasuna: galdera onak egitea askotan da besteak esan duena galdera baten bidez errefutatzea, edota lortzea besteak barruan duen ezagutza hori kanpora ateratzea. Haur eta gazteen gorputzetan ere arreta handia jarri behar dugu, batzuetan askoz gehiago komunikatzen dugulako gorputzaren bidez, hitzez baino. Berdin alde emozionalarekin, zergatik sumintzen gaitu ideia batek? Gidariak ez du iritzirik ematen,

galderen bidez azaleratzen ditu iluntasunean dauden beste ikuspegi batzuk, desmuntatzen ditu ideiak, edo horietan sakontzen du ikusteko nora garamatzaten... Nik sentitzen dut inoiz ez nagoela sobera formatuta, beti nagoela ikasten; elkarrizketa filosofikoa bideratzea ez baita teknika bat, arte bat da.

**Elkarrizketa gidatzen duenak ez du iritzirik ematen, diozu. Zer egin, ume baten iritzia oso desegokia iruditzen bazaigu?**

Aurreko erantzunean aipaturikoak ditugu lanabes, eta horien bidez kontraesanak agerian utzi daitezke, edo planteamenduak absurdoraino eramanez gero, zein ondorio dakartza? Eta gako interesgarri bat hartu behar da kontuan: ez gaude bakarrik, taldean ari gara eta taldeak indar ikaragarria dauka, baita autoerregulatzeke garaian ere: besteak benetan entzuten ari naizen elkarrizketa batean, irekita nago besteen ideiak niregana iristeko, nire ideia eta kontzeptuetara itxita egon ordez. Helduengan itxitasun hori ohikoagoa da, haurrak irekiago egon ohi dira, ez dira hain dogmatikoak.

**Kontrako norabidea hartuko dut orduan: agian helduon dogma eta aurreiritzien arabera da iritzi oso desegokia, haur horrek bota duena.**

Hori da, zeinentzat da astakeria haur horrek esan duena? Zein betaurrekorekin diogu astakeria dela? Horregatik da hain inportantea geure burua aztertzea eta berraztertzea; ezin dugu errealitatea ezagutu, ez baditugu geure burua, geure mugak eta sinesmenak ezagutzen. Kontsulta filosofikoan esaterako hori lantzen dugu, geure burua berrikusten dugularik garbiago egongo garelako haur eta gazteekin filosofia jorratzeko.

**Haurrek benetan pentsatzen dutena esaten dute ala helduok entzun nahi duguna?**

Irakurri egiten gaituzte. Irakurtzen badute espektatiba batekin goazela, haiengandik bilatzen duguna dela ondorio jakin batera iristea, beharbada gordeko dute pentsatzen dutena, baina ikusten dutenean zerbaiten inguruan elkarrekin pentsatzeko baino ez nagoela, bestelakoa da emaitza. Nire esperientziaren arabera, 7 urtera arteko hurrekin gurasoak egon daitezke saioan, baina 8-9 urtetik aurrera ez, eta galdetzen didate gurasoekin kontaktuko al didan saioan



hitz egiten duguna; konfiantza eta konfidentzialtasuna bermatzen dugunean, zintzo eta garbi jokatzeko dugunean, aukera handiagoak daude taldea askatasunez aritzeko.

### **Haurrekin egindako praktika filosofiko saioetatik zer nabarmenduko zenuke?**

Saio bakar batek ez du hazi handirik uzten; ikusten dut talde bat transformatzen doala prozesu bat dagoenean, gai batzuekin eta besteekin metodologia hau aplikatzen denbora bat daramatenean. Zenbat eta txikiagoak izan, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako hasierako urteetan, beraien esperientziarekin lotu ohi dute elkarrizketa filosofikoa; gero abstrakziora jotzen dute eta gaztaroan abstrakzioa eta kritikotasuna maila gorenean egon ohi dira. Gazteekin filosofia saio bat egitea bonba bat da, klase magistralkin itota beren barne dimentsio hori irteteko garrasika ari delako. Haur Hezkuntzan gorputza, emozioak... ere lantzen dira, baina adinean gora egiten ahala, orduan eta kognitiboa-

**“Ez dugu bilatzen terapia egitea, baina batzuetan efektu terapeutikoa du, barnean gauza asko ukitzen dituelako”**



go bihurtzen da dena, areagotu egiten da desoreka.


Haur Hezkuntzako irakasle batek kontatu zidan ikasleekin filosofia landu zuela, eta umeak Lehen Hezkuntzara pasa zirenean, irakasle berria etorri zitzaiola esanez ezin zuela klaserik eman, haurrek galdera asko egiten zizkiotela. Haur Hezkuntzako irakasleak haziak landatu zituen eta hazi horiek beren bidea egingo dute, baina halakoek segida baldin badute, haziak prozesu transformatzaile bihurtzen dira, lehen

aipatu moduan. Hainbatetan, Haur eta Lehen Hezkuntzan elkarrizketa filosofikoa praktikatu duten taldeak gidatzea egokitu zait (Euskal Herrian ez dut halakorik ezagutu) eta antzematen zaie, bai elkarrizketan gainerakoekiko duten errespetuan, bai ideiak lantzeko duten gaitasunean: ohituta daude galderak egiten, kritikoak izaten...

**Baina helduok ez al dugu tranpa egiten? Iritzi kritikoa eta propioa duten haur eta gazteak nahi ditugula diogu, baina ez zaigu gustatzen guk dioguna zalantzan jartzeko dutenean, etxean nahiz eskolan.**

Eta kontraesanean dago ikasgai batean elkarrizketa filosofikoa sustatzea eta bestean kritikotasunik eza. Lipmanek zioen, eskola batean txikitatik praktika filosofikoa bultzatuko bada, aldiro bilduko den irakasleen arteko elkarrizketa komunitate bat sortu beharko litzateke, denak norabide berean eta modu koherentean aritzeko ikasleekin. Hori da ideala, baina errealitatean erronka asko ditugu oraindik. ●

ARGIA.EUS



## Pipiak jotako etxea berritu da

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sarea garatzen joan den heinean joan da Argia.eus webgunea ere bere alaketak eta egokitzapenak egiten. Azkena duela aste batzuk ezagutu dugu. Diseinuan argiagoa da, mugikorretara egokituago dago, dinamikoagoa da... Baina "tripei" eman diete garrantzia oraingoan; orrialdearen barne antolaketari, administrazioari, eta zergatia jakin nahi izan dugu.

"Alde publikoa, irakurleek ikusten dutena, urteetan zehar pixkanaka aldatuz joan gara etengabe. Zatiz zati berritu dugu eta behararen arabera atal berriak gehitu ditugu. Adibidez, azala eta albisteen orriak hiru aldiz berritu ditugu hamar urtetan. Webgunearen administrazioaren garapenera aldiz, askoz denbora gutxiago eskaini diogu azken urteetan. Momentuko apururik ateratzeko petatxuak *betirako probisional* bihurtzen joan ziren. Mantenu lan gutxi egin zaion etxe zahar bat bezala zen.

Hondatutako eta hautsak hartutako gelak zituen, beste gela batzuei jatorrizkoa ez zen erabilera eman zitzaien, baina guztiz egokitu gabe, habeak pipiak jota zeuden... Aldaketa bat egiten hastean beldurrak airean ibiltzen ginen, nahi gabe gauzak puskatzea erraza zelako. Barrualdeko administrazioak, alde publikoari eman diogun zainketa eta maitasuna falta zuen. Horregatik, eraikin zaharra bota eta hutsetik berria eraikitzea komeni zela erabaki genuen". Asier Iturralde ARGIAko eta Iametzako programatzailearen hitzak dira horiek.

Iturraldek ezin hobeto azaldu digu aldaketa nagusia: "Denbora asko eskaini diogu irakurleek zuzenean nabaritutako ez duten zerbaiti, baina egin beharra zegoen, eta zeharka bada ere kanpotik ere nabaritutako dela iruditzen zait. Kazetariari eta nire lana asko errazten du, eta joko asko emango du. Askatasun han-

## Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Etxean horrelako ekimenak bultzatu nahi ditugulako eta lan hau baloratzen dugulako"

**Andoaindik Josuk**

"Behar nuen"

**Ihabendik Mikelek**

"Euskarazko kazetaritza independentea ito nahi dutenen aurrean, erakutsi nahi dugu herri honetan pertsona asko eta asko prest gaudela proiektua babesteko"

**Urduliztik Itziarrek**

"Independenteak zaretelako"


**Zestoatik Maripazek**

diagoa dute kazetariak azala nahi eran antolatzeke, eta eguneroko beharren arabera azal desberdinak sortzeko aukera ematen du dinamikotasunak. Luze-ra begira egindako apustua da".

### DISEINATZAILEA PROZESUAN MURGILDU DA

Kanpoko diseinurako, berriz, lehen aldiz gehitu dute prozesuan diseinatzailea. Maitane Gartzandia ibili da lan horretan. "Diseinatzea elementuak ordenatzea da, paperean bezala webgunean, irakurlearentzat ahalik eta irakurterrazen suertadain. Informazio asko ematen duen webgunea da gurea eta hori dena begiek ahalik eta ondoen jasotzea izan da asmoa. Tipografiak, kolore gamak edo testuen eta irudien arteko distantziak, adibidez, paper handia jokatzen dute", esplikatu digu Gartzandiak. ●

# Nola oroitu dugu Intxaurrondo?



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**D**onostia, 1968. Udalak Intxaurrondoko auzoko planifikazio urbanoa onartu zuen eta, ondorioz, 19 baserri bota zituzten. 1950eko hamarkadaren erdialdean hasi ziren langileentzako auzuneak eraikitzen, modu desordenatuan eta espekulazioa medio. Baina baserriak bota ondoren, 1970eko hamarkadan urbanizazioa modu planifikatuagoan egiten hasi ziren eta, pixkanaka, baserri eremua izandakoa etxebizitza blokez betetzen joan zen.

Hamarkada horren amaieran, Guardia Zibilarren egoitza berri bat eraikitzeko asmoa zuten Donostian. Baina eraikuntza lizentziak lortzeko oztopoak zituztenez, Madrilgo UCDko gobernuak langileentzako bloke multzo bat erostea erabaki zuen. Intxaurrondoko kuartela edo 513. komandantzia 1980an jarri zuten martxan, Enrique Rodríguez Galindo (1939-1921) komandantea buru.

Hasieran, auzoren zabalkundea osatu artean, kuartela isolatuta zegoen eta, berehala, muturreko segurtasun neurriek gotorleku bihurtu zuten; Fort Apache ezizena ere erabili zuen zenbaitek. Batzuentzat ETArek aurkako borrokaren sinbolo da Intxaurrondo: 278 komando desaktibatu eta erakunde horretako 1.550 kideren atxiloketak bideratu omen ziren handik.

Baina ehunka eta ehunka tortura salaketetan oinarritzen direnek, beste titulu batzuk eman dizkiote kuartelari: "Torturen laborategia", "Europa mende-



QUIRICO LOPEZ ROMERO

Intxaurrondoko kuartelaren sarrera 1980ko hamarkadan.

baldeko tortura gune nagusia". Intxaurrondoko kuartelarekin lotutako lehen tortura kasua egoitza inauguratu baino lehen gertatu zen. Egoitza administratiiboak eraikitzen ari zirela ETAk lehergailu bat eztanda arazi zuen eta Mikel Amilibia atxilotu zuten horregatik. Frogarik gabe aske utzi zuten arren, Juan Mari Bandres abokatuak Amilibia torturatu zutela salatu zuen. Eta ez ziren soilik atxilotuak edo haien abokatuak torturak salatzen zituztenak. Amnistia Internazionala erakundeak 1984an lehenengoz salatu zituen Intxaurrondoko bi tortura kasu.

Mundu osoan, tortura gune izandako hainbat eraikin oroimen gune bihurtzen ari dira. Txilen, Pinochetek garaian atxiloteta eta tortura gune nagusi izandako Villa Grimaldi Bakearen Museo bilakatu

dute. Santiagoko estadioan dozenka pertsona torturatu eta hil zituzten 1973an, besteak beste, Victor Jara, eta 2003az geroztik, poeta eta abeslariaren izena darama estadioak. Bartzelonan, Via Laietana poliziaren egoitza "demokrazien oroimen toki" bihurtzeko izapideak abiatu dituzte, frankismoan sistematikoiki egindako torturak ahaztu ez daitezten. Donostian bertan, iaz, La Cumbre jauregia udalaren esku uzteko eta memoria gune bilakatzeko akordioa sinatu zuten Espainiako Gobernuarekin. Lasa eta Zabala La Cumbren torturatu zituzten, eta Intxaurrondoko kuartelean ere bai. Baina, Europa mendebaldeko tortura gune nagusiak Gipuzkoako Guardia Zibilarren Komandantziaren egoitza izaten jarraitzen du. ●

## Animalia bikingo bidaiariak

IX. mendean bikingoek Ingalaterra ekialdeko kostaldean eraso egin zuten, monasterioak arpilatu eta harrapatutakoarekin etxera itzultzeko. Baina gutxienez talde bikingo horietako bat luzeago geratu zen, Heath Woodeko aztarnategia lekuko. Nekropolian, besteak beste, erretako hezur multzo bat topatu zuten eta, orain, arrastoak aztertuta, ikusi dute giza hezurrez gain ani-

malia hezurak ere badaudela, zehazki, txakur, zaldi eta txerri hezurak. Gainera, hezurretako estrontzio isotopoak aztertuz jakin ahal izan dute animalia horiek egungo Norvegiar eta Suedia iparraldean zutela jatorria. Ikerlanak, ondorioz, bikingoen filmetan ikusten ez dugun irudi bat utzi digu: bikingoek itsasontzietan beren animaliekin bidaiatu ohi zuten. ●



YORKEKO UNIBERTSITATEA

# HORI SAPINOA BAINO BIHURRIAGOA DUNK



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Bada “xingola” esaten diogun landarea (*Chlorophytum comosum*). Izen zientifikoak ez du aparteko informazio berezirik ematen, soilik landare berdea dela (grekoko *Chloros* + *phyton*) eta loreak motots harroetan zabaltzen dituela (grekoko *comosum*). Bere hostoen formagatik izena du xingola: estu, mehe eta luzea da. Malgua ere bada, xingola egiteko moduko gaia izanik, baina nik dakidala ez da lokarri gisa erabiltzen. Erdaretan ere “*cinta*” eta “*ribbon plant*” esaten diote; xingola, alegia. Euskarazko Wikipedian “zinta-belar” bezala agertzen dira berez lezkek direnak: hostozabala (*Tipha latifolia*) eta hostoestua (*Tipha angustifolia*). Lezkei “enea” ere esaten zaie, baita “txuflaska” ere, eta hostoestuari “silla-belarra”, aulkien ipurdia josteko erabiltzen baita.

Xingola ez bezala, lezkek lokarriak egiteko baliatzen dira. Hosto luze-luzea dute eta sokak egiteko gai egokia dira. Beste makina bat landare baliatu izan da lokarriak egiteko. Batzuen adarrak, besteen azalak, baita hostoak eta zurikinak nahiz sustraiak eta lastoa ere aproposak dira amarrak, bilurrak, sapinoak, estroboak, lokailuak eta abar moldatzeko.

Batean eta bestean entzun, ikusi eta irakurri ditudanetakoetatik tiraka, hona gurean erabili izan diren landare mor-



doxka. Gaztainondoa (*Castanea sativa*), ezkia (*Tilia spp.*), zume hauskorra (*Salix fragilis*), zume jatorra (*Salix viminalis*), zume zuria (*Salix alba*), zume negartia (*Salix babylonica*), zume gorria (*Salix purpurea*), zume hostoestua (*Salix eleagnos*), zumea (*Salix x rubens*), hurrizta (*Corylus avellana*), kalamua (*Cannabis sativa subsp. sativa.*), lihoa (*Linum usitatissimum*), olo zoroa edo histu-belarra (*Avena fatua*), asuna (*Urtica dioica*), goilora hostoestua (*Epilobium angustifo-*

*lium*), ostargi-belar horia (*Iris pseudocorus*), laharra (*Rubus spp.*), astalarrosa edo arkakaratsa (*Rosa canina*), ezker-aihera edo lupulua (*Humulus lupulus*), artoa (*Zea mays*), espartzuak (*Ligeum spartum* eta *Stipa tenacissima*), atzaparra edo ahuntz-hostoa (*Lonicera caprifolium*), basoetako atzaparra (*Lonicera periclymenum*), porrua (*Allium porrum*), ihia edo zindun-belarra edo ziria (*Juncus acutus*), elefante oineko juka (*Yucca elephantipes*) eta aihen zuria edo hautina edo aiarte (*Clematis vitalba*). Azken hori nabarmendu nahiko nuke, izan ere, seguruenera gehien erabilitakoen artean egongo da. Ez baduzu inoiz entzun, begira zer izen dituen: bihurri, bihurriki, bidurri, ligarza, bilur eta bilurda behintzat bai. Haritzaren (*Quercus robur*) sustraiak ere bihurrituta erabili izan dira eta “bihurria” esaten zaie horiei ere.

Ezin ahaztu lokarri horietako askoren muturrean errazago askatzeko, lotzeko eta gutxiago zarrastatzeko jartzen zen zurezko antzadila, gako edo uztai formakoa, maiz haginezkoa (*Taxus baccata*).

Lokarriak hurbilekoarekin atontzea bizimodua errazteko bidea izango zen; bide ederra. Zenbat bihurritu eman ote zaizkie landare horien gaiei? Esaerak hala dio: “Hori sapinoa baino bihurragoa dunk”. ●



## AMEZTI

# JAIZKIBELGO JATORRIZKO AMEZTIA BERRESKURATZEKO LANEAN



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**H**erri eta bailara askotan ari dira bertako basoen aldeko mugimenduak sortzen, eta horietako gehienak Baso Biziak plataforman bildu dira. Bada, pizkunde horren baitan, Jaizkibel inguruan lehenagotik lanean ari zen pertsona talde bat elkartu eta Amezti taldea sortu zuten iaz. “Urteak generamatzen pertsona batzuk hemengo basoa berreskuratzeko ahaleginetan lanean, eta justu iaz, gogotsu zegoen jende gazteagoarekin elkartu eta baso bizien aldeko mugimenduak animatuta, taldea sortu genuen”, azaldu dute proiektutik. Momentuz, Lezoko jendea dabil taldean, baina haien asmoa Jaizkibel mendi osoari begirako proiektua bultzatzea da. Urtarrilaren bukaeran baso bizien astea antolatu zuten.

## AMEZTIAREN DESAGERTZEA

Jaizkibel inguruan ameztia zen nagusi garai batean, baina gaur egun ezer gutxi gelditzen da lehenago baso hartatik. “Amezti ilaratxo gutxi batzuk besterik ez dira gelditzen, Hondarribi aldera txokoren bat ere bada, baina oso eskasa da”, diote. Hariztia ere urria da, batez ere lursail pribatuetan eta elkarren arteko loturarik gabeko orban txiki moduan dago. Itsas pinua da nagusi Jaizkibelen, eta horrekin batera intsinis pinua, nahiz eta galtzen joan den azken urteotan. “Ia ez dago bertako basorik, baina,aldi berean, nabarmena da gu azken urteotan lanean aritu garen eremuan



basoa beste egoera batean dagoela”, adierazi dute.

Izan ere, Iparragirre izeneko lur-eremuan urteak daramatzate bertako espezieak landatzen eta basoaren berreskurapen naturala laguntzen: “Bazeuden haritzak, lizarrak, urkiak eta hazia ematen duten landareak, eta guk ametza ere sartu dugu. Oraindik baso gaztea da, baina honezkero ikusten da beste partzeletan ikusten ez den aberastasuna”. Hain justu, Satrustegi familia aberatsaren 22

hektareako lursailaren parte da eremu hau eta herriarekin muga egiten du. “Jaizkibelera-ko oinezko bideak hortik doaz, eta herritarrok betidanik erabili izan dugu baso hori. Erabili, ez ustiatu”, azpimarratu dute.

## LURRAK DESJABETZEKO ESKAERA

Urtarrilean eskaera egin zioten Ameztik eta Etxetxo Lezoko Memoria Historikoaren taldeak udalari: Satrustegitarren 22 hektareako lur eremua desjabetu dezala. “Basoaren garrantziaz gain, eremu horretan gerra ostean errepidea egin zuten presoek eraikitako hormak daude, eta memoria hori berreskuratzeko auzolanak ere egin izan ditugu”, diote. Gainera, lursailaren beheko partetik pasatzen den errekatik edan du historikoki Lezoko herriak, eta, gunearen interes hidrografikoa ere aldarrikatzen dute taldeek.

“Dena dela, guk eskatzen dugu udalak edo beste erakunderen batek lursail hori eskuratzen badu kudeaketa guk eraman ahal izatea, ikusten ari baikara

beste toki batzuetan jabetza publikoko lurretan ere astakeria handiak egiten ari direla”. Eskaerak ez du erantzunik jaso, momentuz. Bitartean, baina, taldeak ez daude geldirik: auzolanarekin jarraitzeko asmoa dute, eta eskala txikiko ametz mintegia martxan jartzeko asmotan dira, landare hori lortzeko zailtasunak baitituzte. “Beste toki batzuetan topatu daiteke, baina hona egokitutako landarea behar du”. ●

“ ”

# Behar ditugu pelikula handi, epiko eta sublimeak ere

Edurne Azkarate eta Paul Urkijo



Paganoak ezkutuan bizi dira Iratiko basoan, kristauengandik ihesi. Baina azken hauek besteen laguntza beharko dute. Odolezko itun batek elkartuko ditu bi herriak, eta misterioa gailenduko da gero, belizismo, sinesmen eta kondaira guztien artean. Otsailaren 24an helduko da zinemetara *Irati* pelikula preziatua. Paul Urkijok zuzendu eta Edurne Azkaratek interpretatu du Irati.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO

### Badator estreinaldia. Urduri?

**Paul Urkijo:** Bai, pixka bat. Estresatu ere bai, lan asko daukagu-eta azken egun hauetan. Baina gogotsu, guztiaren gainetik.

**Edurne Azkarate:** Luze egiten da, dena esatera. Baina entretenituta gaude, bai.

**P.U.:** Nahi baino beranduago estreinatuko dugu ekoiztetxeak hala aginduta, pelikula handiagoek ez ziezaguten itzal handirik egin. Beste jaialdi batzuk ere egon dira tartean, eta orain artean ondo joan dela esan dezakegu, jendeari gustatzen ari zaiolako.

### Ikusteko behintzat ederra da.

#### Paisaiak mundialak dira.

**P.U.:** Euskal Herri osoan dago grabatuta pelikula. Karrantzako eta Eltziegoko kobazuloetan, Iratiko oihanean noski, Huescara ere joan gara Nafarroako Erre-suma zenaren lurretara, eta Oñatiko Harrikrutzen ere izan gara, besteak beste. Errodajea konplikatua izaten da halako lekuetan, leizeetan-eta.

### Erdi Aroan kokatutako pelikulak ez dira ohikoenak. Nola kokatzen da norbere burua iragan hain urrunean?

**E.A.:** Euskararen egokitzapenak erakarri eta murgildu nau gehien. Gorka Lazkanok sekulako lana egin du hizkuntzaren alorrean; hori izan zen nire heldulekua eta imajinazioa piztu zidana.

### Informazioa ere bildu beharko zenuten, garaian kokatzeko.

**E.A.:** Bai, nire kasuan, gidoiaz gain, erabili ditut bestelako errekurtsoak; liburuak, esaterako...

**P.U.:** Informatu gara, Aranzadirekin hitz egin genuen, eta saiatu gara txertatzen fantasiako pelikula baten sinesgarritasuna lortzeko adinako informazio jaso.

Lizentzia pila bat hartu ditugu ere, noski. Hartu behar genituen. Izaki mitologikoak dauden unetik, non dago erreallitatea? Saiatu gara, hori bai, errespetu eta maitasun guztiarekin zaintzen aurrez liburutetan jasota zegoena.

### Joxean Muñoz eta Juan Luis Landaren *Irati* komikia izan duzue abiapuntu.

**P.U.:** Erreferentzia eta oinarria izan da, baina komikiak berez beste tonu bat dauka. Nerabeen abenturazko komikia da, fantasiakoa. Orduan, elementu horiek gure pelikulara ekarri behar izan ditugu.

### Nola?

**P.U.:** Pelikula hau nahi dugu izatea euskal mitologiaren historiari omenaldia egiteko ahalegina. Gehien interesatzen zaidana, euskal mitologiatik, Mari pertsonaia da. Amalurraren pertsonifikazio goren da, eta antropologikoki ere, garai

indoeuroparra baino lehenago zegoen erlijio matriarkal baten arrastoa. Oso pertsonaia boteretsua da, eta nire ustez, komikian esaterako, ez zeukan nagusitasuna. Nik bai eman nahi nion gehiago, eta horregatik da puntu zentrala-edo. Iratiren bitartez murgiltzen gara Amalurrean.

### Edurne, gidoia eduki arren, eraiki egin beharko zenuen pertsonaia. Mitologiari ari gara. Ze puntura arte sentitu zara aske?

**E.A.:** Dena neukan eginda, eta aldi berean sentitzen nintzen aske. Aurretik neukan informazioari, pelikulako sail bakoitzak bereak gehitu zizkion, eta finean, bakoitzak berea irudikatzen du eta ni elikatzen naiz guzti horretatik. Nire lana izan zen lurrera ekartzea pertsonaia. Irakurri eta jasotako guztitik, lurrean iltzatzen nintzen. Errodajera iristean hartzen dira helduleku lurta-rragoak, batez ere, testuak emandako informazioatik, janzkeratik edota eszenatik oro har. Janzkerak asko esaten du pertsonalitatea eraikitzerako orduan.

### Iratiren bidez helduko gara Mari ezagutzera. Jakin-min handia dago hura ezagutzeko. Nolabait ere bada erreferentzia puntua, ezta?

**P.U.:** Amalurrak hori dauka: ama dela eta zaintzen gaituela, baina gero batzuetan izugarria izan daiteke, eta bat-batean dena suntsitu. Zirrara hori ezagutu nahi du Iratik.

**E.A.:** Oso polita izan zen. Denbora gutxi egin nuen lan Itziar Ituñorekin -berak





egiten du Mari-. Maila pertsonalean eronka zen, eta pertsonaiarentzat ere bai. Patuaren zentzuan jarrita, garrantzitsua zen Iratirentzat. Marirekin aurrez aurre harremantzea bada berarentzat nolabaiteko amaiera bat, guztia gainditzeko duen unea. Ulermen handiago batera sarbidea eman ahal dion kobazulo bat-edo, helmuga bat. Ikusiko du gertatu zaizkion gauza guztiekin baduela zerikusia.

**P.U.:** Inflexio puntu bat, azkenean.

**E.A.:** Bai, puntu hori non batzen den bai hasiera eta bai amaiera. Dena dagoen zulo beltza. Eta hori eta gero, zer dago? Ba ez dakit. Pertsonaiaren jomuga altuena da.

### **Amalurra arriskuan ageri zaigu pelikulan, eta VIII. mendea da. Gaur egungo arazoa ere bada.**

**P.U.:** Etengabeko dualismo bat irudikatzen da pelikulan: kristautasuna eta paganismoa; gizakia eta natura; Eneko eta Irati... Eta nola bata iritsi den bestea jatera. Erljio handiek, azkenean, iren-tsi egiten dituzte sinesmen txiki, berezi, koloretsu edo beraien begietan itsusi diren guztiak. Beraz bai, egin daiteke isla egungo globalizazioarekin eta ekologiarekin. Enpresa handiek txikiak irensten dituzten moduan. Sorkuntza arloan ere ikusten dugu: handiek jan edota deformatu egiten dituzte txikiak. *Star Wars* da adibide; dena jan du. Bere terrenoan sartu du guztia. Eta ekologiarekin ere gertatzen da pixka bat berdina, nola di-

“ ”

## Euskal mitologiaren historiari omenaldia egiteko ahalegina da pelikula hau

ruarekin zapuzten dugun guztia.

Pelikulak ere badu hizketagai pertseberantzia. Euskal mitologian bada esaldi bat: “Izena duen guztia bada”. Izaki horien guztien izenak esaten jarraitzen badugu, istorioak kontatzen jarraitzen badugu, jarraituko dute existitzen.

### **Egon da pertseberantzia euskal mitologian, baina zenbateraino?**

**P.U.:** Nik beti diot, ni neu naizela kate oso luze baten zati bat gehiago. Mitologiaren inguruko liburu asko irakurri nituen txikitan. Aintzina-aintzinako sinesmenak dira finean, eta mantendu dira elefante handiak etorri diren arren. Euskarak bere baitan jaso ditu guzti horiek. Barandiaranek jaso zituen idatziak, argitaletxe askok lan handia egin dute kontakizun bihurtzeko, eta Su Ta Gar taldearen *Mari* abestia ere bada adibide. Nik hori jaso dut, eta beste forma bat eman diot, naturalki, atera zaidan gisan.

**E.A.:** Pertsonaia mitologikoak normalki erabili izan dira jakintza batek iraun

dezan eta irakaspenak zabaltzeko, munduari azalpen bat luzatzeko. Iratiren pertsonaia ez da agian mitologia klasikokoa, baina bai hartzen du parte jakintza eta irakaspen horren narratiban. Paulek dioen moduan, uste dut iruditeri zabalari beste irudi bat eman diezaiokegula pelikula honen bitartez.

### **Euskararen egokitzapena aipatu duzu lehen, Edurne. Hunkitu zaitu.**

**E.A.:** Bai, erabat. Gehien hunkitu naue-na aktore guztiak konpromisoa hartzen ikustea da. Uste dut euskaldun guztiok badaukagula gure filologo txikia barruan, badaukagula gai hauei buruzko jakin mina. Nik asko gozatu dut, eta bateratasuna lortu dugula uste dut; garrantzitsua da pelikula sinesgarri egiteko.

**P.U.:** Lehen esandako dualismoa ere badago hemen. Hizkuntzaren erabileran bi mundu bereizten dira, bi forma. Paganoez errimekin hitz egiten dute asko, eta latinezko hitzak sartzen dituzte besteek esaterako. Hori ere bada pertsonaiak eraikitzeo erreminta.

**E.A.:** Ez dakit zuk esan zenidan, Paul. Ez nengoen ohartua: elizgizonek euskaraz kantatzen dute hasieran eta istorioak aurrera egin ahala, geroz eta gehiago latinez. Mundiala da. Departamentu guztiak murgildu gara hemen, eta oso friki jarri. Nahi duenak pixka bat ikertu honen inguruan, topatuko du zer aztertu.

### **Apustua izan da euskararena.**

**P.U.:** Bai *Errementarin* eta bai *Iratin* ger-

tatu zait ekoizleen partetik entzutea ea zergatik ez dugun pelikula gazteleraz edo ingelesez egiten. Errentagarriagoa izango litzatekeela, gehiago bidaiatuko genukeela, eta sona handiagoko aktoreak lortu ere bai: Patxi errementaria egiteko agian Javier Bardem izango genukeela eta ez dakit zer gehiago. Baina ez dauka zentzurik obra hau euskara ez den beste hizkuntza batean egiteak. Elezahar hauek oso errotuta daude euskararekin, izen eta esamoldeetan ez ezik, baita izaki mitologikoen ulerkeran ere. Euskaraz pertseberatu dira kondaira hauek.

### Euskaraz izan behar duela, beraz.

**P.U.:** Hori alde batetik, eta bestetik, euskarari kutsu zahar edo aitzinako hori ere eman nahi nion, publikoa gehiago murgiltzeko erreminta narratibo gisa. Euskaldunontzako, noski, zerbait exotikoa izan behar zuen.

### Oso etxekoa da pelikula, sentsazio hori ematen du aktoreak-eta ikusita.

**P.U.:** Berezkoa da hori, egoeragatik sortzen zaigu Euskal Herrian. Oso industria ona daukagu, jende oso langilea eta oso ona bere lanean. Plazer handia izan da jende honekin lan egitea.

**E.A.:** Ilusio handia egon da. Denok geneukan zerbait berezia egiten ari ginenaren sentsazioa, eta hori pila bat kutsatzen da. Jende guztia ari denean alde, gauza ederrak egiten dira. Pelikula eta ideia honi merezi duen lekua eman nahi dion jendearekin lan egiten duzunean nabaritzen da emaitza.

### Festibaletan nabarmendu zarete eta ikusmina egon badago. Proiektzio handia espero da, ezta?



“ ”

Ez dauka zentzurik obra hau euskara ez den beste hizkuntza batean egiteak

**P.U.:** Pantaila handirako pentsatuta dagoen pelikula da. Nire asmoa beti izan da ahalik eta epikoena izatea.

**E.A.:** Agian herri honek ere behar ditu halako pelikulak. Landu behar du esku-bidea gauza handiak egiteko, epiko eta sublimeak, baina askotan euskaraz gauza handiak egite hori handikeriarekin nahasi izan da, baita zigortu ere. Nik uste dut oso garrantzitsua dela euskaldunentzat halako ekoizpenak egitea.

Bide batez, aitortza bat: Paul bezain zoro dagoen jendea badaukagu halako proiektuetan sartzten dena. Erreferentzia handiak falta zaizkigu, urruti eta

handi amesteko aitzakiak.

**P.U.:** Aurkezpen batean esan nuen, eta beti esan ohi dut, "herri txikia" garela. Asisko Urmenetak errieta egin zidan: ez garela herri txikia eta harro egon behar dugula, gure arbasoek mantendu dutelako kultura eta hizkuntza hau. Horregatik, "balio handiko herri handia" garela zioen berak.

### Euskal zinema industriaz hitz egin dezagun. Tantaka agertu ohi dira filmak, hala esan ohi da. Zer diozue?

**E.A.:** Proiektuak aurkezten dira, baina oso mugatuak dira exekuzioan. Nik uste dut are gehiago elikatu behar dela euskarazko zinemagintza.

**P.U.:** Egia da Eusko Jaurlaritzatik babesten dela era batean, zertxobait bermatzen da baina beti da gutxi. Nik uste dut euskal zinema industria geroz eta osasuntsuago dagoela, eta aurrera goaz, baina mantso.

Kontua da, Espainiako Estatuan ere arazoak daudela aretoetara heltzeko, atzerrikoek betetzen dituzte-eta emana diak. Daukagu arazorik handiena hori da: gure aretoetan beti daude gureak ez diren pelikulak. Aterabide handirik gabe geratzen gara.

**E.A.:** Handiak txikia jaten du, hemen ere.

**P.U.:** Bai, baina jarraituko dugu borrokan. Espero dugu *Irati* pelikulak bultzatuko duela jende gehiago euskarazko pelikulak egitera, eta geroz eta gehiago egotea.

### Baduzu proiekturik eskuartean, Paul?

**P.U.:** Bai, beti. Baina bai, esan dezaket baietz, eskuartean ofizialki badaukadala zerbait.

### Ildo bereko zerbait?

**P.U.:** Euskal mitologia, jakina. Gehien gustatzen zaidana horixe da.



# Ikertzen hasi eta ikusten duzu ez dagoela ezer jasota

## Gorka Lazkano

*Irati* pelikularen euskara arduraduna

Atzeko lanik gabe ez dago pelikularik, eta kameraren beste aldean uste baino jende gehiagok ditu ardurak. Errodajera iritsi baino dezente lehenago ekin zion lanari Gorka Lazkanok; liburu artean pasatu ditu ordurik gehienak, batari eta besteari bisitak eginez, ideiak bilduz eta ondorioak ateraz; finean, ezer gutxi frogatua dagoen garai bateko linguistikaz. *Errementarin* egin zuen; orain *Iratin* egin du. Lazkanok egokitu du euskara VIII. mendera.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO

### Paul Urkijoren apustua eta erronkari heldu diozu zuk.

Denboran atzera egitea gustatzen zaio, mitologiaren bitartez iraganera bidaiatu, eta hizkuntzari garrantzi handia ematen dio. Jokaldian sartzen naiz ni.

### Ordu askoko lana.

Bai, bai. Eta buruhauste dezente. Baina gustuko terrenoa da. Kasu bakoitzeko gehiago dokumentatu behar izan dut, eta gehiago edo gutxiago egokitu.

### Nola egokitzen da hizkuntza bat ezer gutxi dakigun garai batera?

Hori da lehenbiziko galdera: zer zegoen garai hartan? Ikertzen hasi eta ikusten duzu ez dagoela ezer jasota. Lehen esaldiak XI. edo XII. mendekoak dira.

Teorizazio bat badago, VIII. mendean *euskara batu zaharra* deritzon zerbait bazegoela dioena. Batasun bat-

edo, dialektoen aurreko agertoki edo egoera. Horren ezaugarriak definitzeko autoritate filologikoengana jo nuen: liburu, sareko testu eta adituengana. Iñaki Camino, Koldo Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*, tesi asko daude ere bai...

### Zerbait argia, zehatza eta erabat ziurra topatu duzu?

Ez, ez. Hizkuntzaren bilakaera nolakoa izan den, hor kontsentsu bat egon daiteke; baina gero, noski, teorizazioaren adarrak mila dira. Nire zeregina gidoiari kolorantea ematea izan da, eta ez azterketa filologiko bat egitea; horregatik, lizentzia batzuk hartu ditugu apropos, jakinik berez "zuzenagoa" zela beste molde bat erabiltzea. Finean, kolore pixka bat eman nahi izan diot hizkerari, beti ere saiaturaz ikerketa filologikoetara ahalik eta gehien gurturaten.

### Zein lizentzia hartu dituzu?

Eztabaidagarriak izan daitezke batzuk. Adibidez, *h* asperendunaren kasuan, kontsentsu zabala dago eta Arabaraino heltzen zen probak ere badaude, guk dakigula, XI. mendean. Toponimia bazegoen behintzat. Pentsa daiteke beraz, edo hala hartu dugu, *h* asperendunaren fenomeno oso zabaldua zegoela aurretik ere.

Hitanoa egitean, adibidez, ez alokutiboa egitea erabaki dugu; hori ere polemikoa izan daiteke.

### Zergatik?

Xabier Quintanak-eta defendatzen dute XVI. mendean hasi zela finkatzen, baina hori baino lehen ezer gutxi.

Dena den, pentsatu genuen ere jende askok hitanoa ez dakienez, ba beno, errazteko modua izan daitekeela ez alokutiboa erabiltzea. Hitanoa sartu dugu bai, baina guztiontzat ulergarriago izateko eran. Ez da gure zeregina hitanoa irakastea.

### Ulergarri izatea xede.

Bai, ulergarria eta sinesgarria, biak uztartzea.

### Aditz-formak ere aipa ditzagun. Zer nolako eta nongo formak gailentzen dira?

Joseba Lakarrak-eta esaten dute zuberria eta erronkaria izan zitezkeela euskara zaharrenaren dialektorik gotorrenak. Hortik hasi nintzen, esaterako, *-kin* deklinabidea beharrean *-kila* erabiltzen. Hasieran erabiltzea pentsatzen

genuen; gerora, ulergarriagoa izateko kendu genuen. Hori bezala beste hainbat elementu.

Aditz sistemarekin ere gauza bera: batuaren aldeko apustua egin dugu, baina nahasketa dago batu zahar eta modernoaren artean. Euskara batu fantastikoa sortu dugu.

### **Beste elementu bat koloranterako: fonetika.**

*H* asperendunak non jarri; eztabaidagarriak izan daitezkeen hainbat erabaki hartu ditugu tonalitate bat izateko, homogeneitasuna emateko, gutxi gorabehera denek antzera hitz egin zezaten, nahiz eta erregistroak ezberdinak izan. Horretan asko lagundu ninduen Elisa Almandozek; irakurtarldi batzuk egin genituen Lekarozen, Baztan aldeko azentuazioa lantzeko.

### **Errementariko esperientzia ere baliagarri izango zitzaizun.**

Laguntza zuzenagoa izan nuen *Errementari* pelikulan. Koldo Zuazorengana jo nuen orduan; berari pasatzen nizkion testuak eta iritziak ematen zizkidan. Honetan ez dut hori hainbeste bilatu. Oroitz Jauregi EHUko irakasleak aholku dezente eman dizkit, batez ere fonetikaren inguruan. Poza eman zidan berretsi zizkidalako ondorioztatuta neuzkan hainbat kontu: bustidurak eta *j*-ren *yota* ahoskera, esaterako.

### **Dualismoa ere bai: ezberdin hitz egiten dute herri xumeak eta herri kultuak.**

Nik uste dut *Errementarin* nabarmenago geratu zela, baina hemen ere badago ahalegina. Herri xeheari ez nien *sekula* eta halakorik jarri; neologismoak oro har saihestu ditugu, baina kontakizunak eskatu du askotan. Adibidez, *kontatu*: ez da batere zaharra, baina erabili dugu ulergarritasunaren mesedetan.

Bestalde, lantinezko hitzak soilik nobleziak eta kleroak erabiltzen ditu. Apaizak erabiltzen dituen hitzak, *postulationea* esaterako. Horrez gain, herri xeheko lagunarteetan-eta, bokalak jaten dituzte, "etorko da". Dialekto aldetik modernoagoa da bokalak jatea, baina herri-hizkera horri kutsua ematen dio bereizketak. Errimekin hitz egiten dute paganoek, adibidez.

### **Askotan agian ez zaio hainbeste erreparatzen hizkuntzari, ala?**

Hobe, uste dut. Atentzioa ematen duenean beti txarrerako izaten dela esango



“ ”

Kolorea eman nahi izan diogu hizkerari, azterketa filologikorik egiteko asmorik gabe

nuke. Orokorrean diot. Uste dut asko aldatu dela panorama; euskara gero eta naturalagoa egiten da antzerkian, zinema eta literaturan. Guk ere kate horri eman diogu segida.

**Paulek gidoiak zuri pasatu, zuk euskara egokitu, atzera Pauli... Eta aktoreei eman gero. Haiek gorpuzten dute gidioa. Hor ikusten da emaitza.** Aktore bakoitza bere erara ibiltzen da,

bere lan munduan, hara eta hona, eta entseguak egiteko oso aukera gutxi egoten dira. Gidoiarekin batera prestatzen dizkiet hizkerari buruzko oharra: *j* nola esan, azeno hau egin behar da, azentuak markatu, bokal bilkurak... Aktore bakoitza etxetik etortzen da gehiago edo gutxiago landuta. Errodajea, elkartu eta batasuna bilatzen ahalegintzen gara.

### **Edurne Azkaratek kontatu digu hunkitu egin dela lan hau egitean.**

Askok inplikatu da eta oso polita izan da, nik ematen diegan aholku sorta handi hori moldagarria delako. Niretzat sekulakoa da nik idatzi edo egokitutako gauza bat aktore handi hauen ahotan entzutea, baina ez da inoiz ezer itxia egon, asko daukate-eta gehitzeko. Nik baino mila bider esperientzia gehiago dute eta aktore askok izugarri landu dute euskara beraien ibilbidean. ●



LIBURUA

# Linterna piztu ta barrura



CUATROGATOS.ORG

**LIBURUZAINAK  
ZALDI GAINEAN**  
CONCHA PASAMAR  
ITZULPENA: UXOA IÑURRIETA  
A FIN DE CUENTOS, 2022

**XABIER ETXANIZ ERLE**

**B**izitza, batzuetan, ohitura txikien segida monotonoa da. Basoak, batzuetan, kaiolak dira, etsaietzako mugak, mehatxu egiten duen eta fruiturik ematen ez duen itsaso berde bat". Horrela hasten da Concha Pasamar iruindarrak idatzitako liburu berezi eta hunkigarri hau.

Zaldi gainean alde batetik bestera ibili ziren emakumezko liburuzain berezi eta aparta batzuei buruzko liburu honek gehiago du dibulgaziotik literaturatik baino. Hala ere, idazketa landuak, mezuak, testuak eta ilustrazioek irakurketa atsegina sortarazten dutela ezin uka.

1929ko urrian hasten da kontaktuzuna, Ameriketako Estatu Batuetan ekonomiak eztanda egin zuen garaian. Krak ekonomiko hark herrialde osoari

eragin zion: langabezia, gosea, malnutrizioa eta haurren heriotza tasa ikaragarria.

Ateraldi hartatik irteteko gobernuak hainbat neurri jarri zituen indarrean, *New Deal* edo Itun berria delakoaren bidez. Eta horren ondorioz gizonek herriak utzi eta obra publikoan aritzeari ekin zioten. Herrietan, baina, emakumeak geratu ziren eta beraiek bakarrik aurrera egin behar izan zuten.

Apalacheetan liburuak banatzen zituzten emakumeen historia kontatzen zaigu; "Landa-giroko mundu isolatu hartan, liburu-amazona berriak mesfidantzaz hartu beharrean, jendea laster hasi zen haiek noiz etorriko irrikaz egoten, zeruertzetan zaldun-silueta noiz ikusiko".


Pasamarren liburu hau irakurketaren aldeko obra dugu, liburuzainen apologia

egiten duen lana, baina, batez ere, emakumeek eginiko lanari errekonozimendu moduan ikusten dut nik. Zailtasun guztiei aurre egiten nola betetzen zuten beren lana; nola laguntzen zion batak besteari sare bat sortaraziz; nola, itxuraz xumea zen lan hark lortzen zuen bizipoz zabaltzea herrialde isolatu haietan.

Liburuaren amaieran emakume liburuzain haiek eginiko lanaren hainbat datu ageri dira. Mila emakume baino gehiago izan ziren, egunero 30 bat ordu zaldi gainean ibiltzen zirenak, milioi bat erabiltzailerengana iristeko. Milioi erdi liburu mugitu zituzten mendi artean, piztia artean, eguzkitan nahiz negu gorrian...

Eta hori guztia, garai zaharreko itxura duen liburu batean, artisauen estiloko obra guztiz gomendagarrian. ●





MUSIKA

# TOC lako ez dauz bi



TOC

XALBA RAMIREZ

**E**kialdea aipatzen da, baina 2020. hamarkadako belaunaldi berria –deitu dezagun horrela– badator Mendebaldetik ere. Bilboko giro modernoaz gain, badira beste iturburu batzuk, akaso sukurtsal jitez, baina ahots propioz. Mungiak jada sortu du bere marka, eta horren erakusle da, besteak beste, TOC taldea.

Rock progresibo *oldie*-an –baina hamabi minutuko kantak egin beharrik gabe–, soinu propioa ari dira garatzen mungiarrek. Zikinkeria da euren grabaketan bereizgarrietako bat, etxean beren beregi bilatua. Eskertzen da, inperfekzioak arnasa ematen diolako taldeari.

*Bat barik ez dauz bi* EP-a kaleratu zuten Durangoko Azokaren bezperetan, eta lau kanta jasotzen ditu, mungiarren estiloa are gehiago finduz. Rockaren eta postpunkaren bueltan, Xabier Bilbaoren ahots urratu-xuxurlatu-oihukatu bereizgarriak eta Aitor Etxebarriaren gitarra konponketa jostariak –hemen minor har-

monikoa, hor disonantziak, inoiz ez bi bider gauza bera– ematen diote taldeari labeldun zigilua. TOC lako ez dauz bi.

Tira, *Nire Loa* kantak gogoratu dezake Gatiburen *Lorak eskaintzen* –Youtubeko komentarioetan haien ekoizleak esaten duen moduan–, baina harmoniarekin zer edo zer lotu badaiteke ere, ez da inolaz ere erreferentzia estetiko. Gehiago dute Lil Mutikoren antza jarreran: “*Subo al escenario y me la saco, Alex Sardui, Alex Sardui*”.

Gogorrak eta eleganteak dira-eta TOCekoak, eta EP honetan are gehiago erakutsi dute. Iaz atera zen euskal kanta onenen artean jartzen dut nik *Gau eternal bat (M.S.)* amaierako arrangura indartsu horrekin: “Ilun egon arren / Euki eizu argi / Hor nauela beti”. Gezurrak esan behar dizkiogulako noizean behin gure buruari, aurre egiteko.

Mina dute letrek, eta batez ere, mina melodiek. Gaztea sarietan eta zerren-

## BAT BARIK EZ DAUZ BI

TOC

AUTOEKOIZPENA, 2022

detan zorientasunari abesten zaizkien kantek babes handiagoa duten arren –edo mezenasgoa?–, une ilunak argitze-ko bestelako doinuak behar ditugulako. Pikutara doan gizartean, behetik gora eta minetik abesteak askoz gehiago indartzen gaitu.

Aurreko lanetan letrak ulertzen ez zirela eta, meme mordoia ikusi dut han hemenka –bide batez, ba al da gairik meme mordoia eman ez duenik?–. Baina batzuetan ez duzu ulertu behar sentitze-ko. Zeren TOC iman bat da. Eta ez dute managerrik zure jaietan eta ez dakit non inbutuaz sartzeko. Baina imanak harra-patzen bazaitu zureak egin du. Ezingo duzu askatu.

Erdi *moderneo*, erdi *makarreo*, TOC izan dadila eredu bat, aldatzen ari den hamarkada honen helduleku bat: “Haien estrukturan kanta bat / Daukadana da baina ez da asko / Ta zilarrezko bala bat daukat/ Inkisidore puta horiendako”. ●



# Hobe bestela

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

 TXALO PRODUKZIOAK

**B**ikote bat da, bikote sentimentala, emakumea eta gizona. Konfiantzazko, errespetuzko eta maitasunezko harremana irudikatzen dute. Zer-nolako gaietan kontraesanak airean uzteko beldurrik ez dute azaltzen elkarren aurrean. Zintzotasun hori, ordea, ez da berdin islatzen munduarekiko duten jarreran, eta horretaz hitz egiteko beta ematen die egunerokotasunak. Hala nola, genero arteko berdintasunean, jarrera matxistetan eta zintzoa izatean oinarritzen dituzte elkarrizketak eta gatazkak.

Hamahiru eszena labur, deskonektatzeko aukera gutxi ematen dutenak. Trantsizio azkarrak eta interesgarriak, atrezzoaren ordenaz aldatuta espazioan eta denboran mugitzen gaituztenak: autobusbeltokia, etxea, taberna, eskola, jatetxea... Finean, bizitza partekatzen dute protagonistek eta edozein une edo lekutan izaten dituzte hizketaldiak, aza-

lekoak diruditenak batzuk, baina zinez sakonak diren gaien bueltan.

Emakumea ala gizona, nor den matxistagoa. Afera horrekin jokatzeko du egileak eta egoera zehatzekin adibideak ematera dator eszena bakoitza. Biloba musika eskolan hasi da. Nahiago zuten irakaslea emakumezkoa izatea, baina gizona da eta pedofiloa ote den beldur da emakume protagonista. Gizonak zalantzan jarriko du ikuspegia.

Egoera bakoitza *round* bat litzateke boxeoa. Ea nork irabazi, ea nor zentzudunago. Faborittoa zein den erabakitzen du ikusleak; ez dakit, baina, etikoki zuzena denaren ala identifikatuta sentitu garen horren alde egiten dugun. Matxismoa jarrera bat dela irudikatu nahi dute, feminista militante batek ere izan ditzakeela kontraesanak, hala ikusarazten du protagonistak. Eta gizona etsaia izatearen ideia horretatik aldentzen du, konplize bilakatuz. Abiapuntu interesgarria da ez

## HOBE IXILIK

**NON:** Antzoki Zaharra (Donostia)

**NOIZ:** urtarrilak 27 **EGILEA:** Salomé Lelouch

**KONPAINIA:** Txalo Produzioak

**ZUZENDARIA:** Begoña Bilbao


**AKTOREAK:** Itziar Ituño eta Ramon Agirre

balute gizona politikoki eskuin alderantz bideratu uneraren batean, arazoari konponbide bat eskainiko baliote, edo genero problematikaren existentzia testuinguruan jarri eta hura gauzatzeko agenteak zentzuzko diren identifikatuko balituzte.

Umorea nonahi darabil antzezlanak, baina jorratzen dituzten gaiak serioak dira. Musika alaiak, dantzaren errekurtsioak eta energia positiboak publikoak bereganatzen du, baina antzezlanaz gain gaia ere umorez hartzeko arriskua dakar. Bikote bat den heinean kontu pribatuak direla uler daiteke, pertsonala eta norbanakoarena den fenomenoa. Ez ote da eskas geratu hausnarketara bultzatzeko ahalegina? Errealitatea erakusten duten bezalakoa balitz, onartzera baino ez garamatza proposamenak, gure buruaz barre egin eta betiko lez jarraitzera. Bestelako ordena bat existitzeko aukerarik ez balego gisan. Hala ere, baten batek izango du nondik tira. ●



## Gurutzegrama



## Sudokua

ERRAZA

			7	4	5	6	1	9
4		9	8			7	2	5
		5		1		4		8
		4		7	1	2		6
1	7	6		5	9	3	8	
		3	4		6	1	5	
3	5	7				8		2
	4	2			8	9		
		1	6					

### EZKER-ESKUIN:

- 1. Poltsa, bereziki dirua erabiltzekoa. / Txekor emea. 2. Baso-sisteman zirkulatzeko duen likido. / Gezi txiki. 3. Eztabaida. 4. Angelu. 5. Zerbaiten maila. / Erretzen zail dena. 6. Hegoalde. / Saioa, esperimntua. 7. Ezaldiak. / Adinkideak. 8. Linuaren hazi. / Eskuz erabili.

### GOITIK BEHERA:



- 1. Adar txiki eta mehe. / Heldu aditzaren infinitiboa. 2. Zezen zikiratu. / Eskolatu, irakatsi. 3. Jaiotegun. 4. Arbelan idazteko erabiltzen dena. 5. Biologiako lizentziatua. / Ezeztatze erabiltzen den hitza. 6. Du, haiei. / Hegazti sarraskijale, putre. 7. Argazkian. 8. Inprimatu. 9. Gadolinioaren ikurra. / Oratuz. 10. Nafarroako herria, Longida udalerrikoa. / Ihardun. 11. Toki, leku. 12. Kontrakotasuna adierazteko aurrizkia. 13. Arnas ezak hila. 14. Norentzat atzikia. 15. Zorro handi.

### ZAILA

	7	2		9				8
	4	8	5	7				
				6		2		
	8					6	7	
		4		9		1		
	2	9			5			4
						2		
			8		4			
1	5	6	2					

## Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



## Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Argitzeko makila
- Ipurtzuloa
- Eztabaidan
- ... eta arte, bitartean
- Laster, berehala
- Mantendu, eutsi
- Momentu honetan
- Gariaren hautsa
- Hegaztien gorotz
- Sekula
- Isurkari mingots
- Abere zuri-beltz
- Irmo, sendo

ZUZIA
TINKO

### EBAZPENAK

GABE, ETXEKOEN ALDE ARRAZOIAREKIN EDO ATSOITZITZA

8	1	5	6	2	3	4	7	9
2	9	7	8	5	4	3	1	6
4	3	6	9	1	7	2	8	5
1	2	9	7	6	5	8	3	4
7	6	4	3	9	8	1	5	2
5	8	3	2	4	1	9	6	7
9	5	1	4	8	6	7	2	3
3	4	8	5	7	2	6	9	1
6	7	2	1	3	9	5	4	8

### ZAILA

8	9	1	6	2	7	5	4	3
6	4	2	5	3	8	9	7	1
3	5	7	1	9	4	8	6	2
9	2	3	4	8	6	1	5	7
1	7	6	2	5	9	3	8	4
5	8	4	3	7	1	2	9	6
4	1	9	8	6	3	7	2	5
2	3	8	7	4	5	6	1	9

### ERRAZA

ESKER-ESKUI: 1. ZISKU, BIGA, 2. ODOL, DARDIO, 3. TIRABIRA, 4. TRIEDRO, 5. HEIN, ERREGAITZ, 6. HEGO, 7. SAIAKUNTZA, 7. EZUNEAK, KINTOAK, 8. LINAZI, 9. MANEATU. GOITIK BEHERA: 1. ZOTZ, HEL, 2. IDI, HEZI, 3. SORTTEGUN, 4. KLARIONA, 5. BIN, EZ, 6. DIE, SAI, 7. BARDEAK, 8. IRARRI, 9. GD, ORAKA, 10. AOS, EKIN, 11. GUNE, 12. ANTI, 13. ITOA, 14. TZA, 15. ZAKU.

# Ainhoa Larretxea Agirre

PLAZANDREA. GAI-JARTZAILEA.



## PUNTUAK JARTZEN

Hiru urte zituela hasi zen saltsan. Musika bidelagun harturik, tresna bat eta bestea probatu ditu, haurtzarotik gaur arte. Konstantzia da bere ezaugarrietako bat. Txistua da orain hatsa kentzen diona. Hamar urterekin ekin zion bertsoari, eta oraindik ere jarraitzen du Bortzirietako bertso eskolan. Ez ordea kantari, gaiak jartzen edo aurkezten baizik, jende aitzinean abestea ez duela atsegin ohartu baitzen berehala. Maite du ordea, hizkuntzarekin jolastea eta trebatzea. "Bertso eskolak badu zerbait, ez dakit nola erran, talde baten parte sentiarazten zaituena. Ttikatik, eskualdeko bertso lehiaketan, kantatzen ez genuenok trikitixa jotzen, aurkezten edota epaitzen jartzen gintuzten". Berak aurkezle edota gai-jartzaile bideari heldu dio gogoz eta ilusioz.

"Plazan hagitz ongi pentsatzen dut zein gai ez dudan jarriko, zenbait kontu ez hauspotzeko"

Haurra zela hasi zen bertso-eskolan Ainhoa Larretxea Agirre (1996, Bera), eta hamar urte daramatza gai-jartzaile gisa. Publikoan kantatzea ez zaio sekula gustatu; hizkuntzarekin jolastea bai, ordea. Gaiak jartzea "bertze sorkuntza mota bat" dela aldarrikatu digu. Atsegin du bertsolaria zirikatatu eta haren lekuan sentitzea, orri zuri bat hartu eta ideiak zerrendatzea. Bertsolari Txapelketa Nagusia atzean utzi eta plazaz plaza dabil arrunt gustura.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  IRANTZU PASTOR

## Gai-jartzailea uste baino figura garrantzitsuagoa da.

Saio baten ostean, bertsolariak aipatu ordez, gaiez edota gai-jartzaileaz mintzo bada jendea, hor arazo bat dago. Bertsoaio konkretuetarako bakarrik aritzen naiz gaiak prestatzen; ardura pisutsua egiten zait, beraz. Txapelketetarako ezberdina da, ordea. Taldean aritzen gara, eta oholtzara bakarrik igo arren, taldearen babesarekin sentitzen naiz jende aurrean.

## Ahalduntze bertso-eskolan ere gaiak jartzen aritzen zara.

Bai, emakume bertsolariak ahalduntzeko asmoz sortu zen duela lau urte, eta gai-jartzaileentzat ere zabaldu zen taldea. Azken batean, bertso saio bat egiten dugu gure artean. Presiorik gabe, epaiketarik gabe; saio esperimentalak dira. Hagitz aberasgarria da niretzat. Besteak behatzeko helburuarekin hasi nintzen, eta pandemiaren ondoren, berriz hasi ginenean, gai-jartzaile gisa parte hartzeko eskaini zidaten. Ezin horrelako aukera bati ezetz esan!

Gainera, egun plazan jartzen ditudan gai aunitzek ahalduntze bertso eskolako filtroa pasa dute jada. Beraz, lan horretarako ere balio dit eskolak.

## Nola heldu zinen gai-jartzaile izatera?

Hamar urte nituela hasi nintzen bertso-eskolan, aitak epaile lanak egiten zituen jada eta hagitz espazio naturala zen niretzat. Oso etxekoa. Jende aitzinean kantatzea ordea, ez dut sekula gustuko izan. Nerabe nintzela, Estitxu Arotzenak proposatu zidan Bortzirietako taldekako txapelketan gai-jartzaile aritzeko, eta horrela topatu nuen nire lekua mundu honetan. Taldekako lehia izanik, bertsolariak, epaileak eta gai-jartzaileak behar dira, bai eskualdekoan eta baita Nafarroako Txapelketan ere. Gutxinaka gainera, trebatzeko aukera izan dut, atal hau ere lantzen ari baikara elkartean eta tartekako formakuntza saioak jasotzen ditugu.

## Plazan nahiz txapelketan gaitegia asko aldatu da azken urteetan.

Bai, jendartea eraldatu eta Euskal



BERTSOZALE ELKARTEA

"Dena da kritikagarria eta oso merke ateratzen dira kritikak. Guk egungo Euskal Herria jarri nahi izan dugu oholta gainean txapelketan zehar".

Herria ere aldatu den heinean, gaiak horretara egokitu dira. Garai batean politikak eta preso politikoek gaiak pisu handia hartzen zuten; egun, ordea, eguneroko gertakari edota gaien inguruan kantarazten diegu bertsolariei.

### **Zuk nola lantzen dituzu saio baterako gaiak?**

Ez ditut orduak zenbatzen, baina denbora aunitz bideratzen diot. Saioa zergatik antolatzen den jakin nahi izaten dut, antolatzaileek zer espero duten ezagutu, zein publiko mota espero den eta hala-koak. Ordenagailuko dokumentu batean notatzen ditut gai posibleak, hitz gakoak eta ideiak. Momentu konkretu batean, bertsolari jakin batek zer kantatzea espero den ere aurreratzen edo asmatzen ahalegintzen gara gai-jartzaileok. Ezberdina da plazako saio bat eta antzoki bateko saio bat. Detalle oro kontutan hartzen saiatzen naiz gaiak proposatzeko anean, horrek ere eragiten duelako saioaren borobiltasunean.

### **Eta Txapelketa Nagusiko gaiak nola prestatzen dituzue?**

Hamalau pertsonako talde bat egon gara

azken Bertsolari Txapelketa Nagusiko gaiak prestatzeko lantaldean. Asteartero elkartu gara Txapelketa osoan zehar, batez ere asteburuan zetorrena prestatzeko. Norberak gai batzuk lantzen zituen etxean, eta bateratu eta landu ostean erabakitzen genuen zein gaik eginen zuen aurrera eta zeinek ez.

Lehen ataza hori amaitu ondotik, saioari forma ematen hasten ginen. Zehazki aukeratzen gaien formulazioa, eta hitzen, aditzen eta adjektiboen erabilera eta kokapena. Hagitz zehatz azertu genuen dena saio oro, behin eta berri, besteak beste leku beretik bi aldiz ez kantatzeko bertsolariek.

### **Eta hala ere, kritikak.**

Zer espero dugu sare sozialen garai honetan? Dena da kritikagarria eta oso merke ateratzen da. Guk egungo Euskal Herria jarri nahi izan dugu oholta gainean txapelketan zehar eta baita eguneroko saioetan ere. Kontziente gara zaila dela, gai batzuk hagitz berriak direlako eta ziurrenik bertsolari askori horren inguruko iritzi propio bat osatzeko denborarik ere eman ez dielako.

Bertso saioa gidatzea da gai-jartzai-

learen ardura, konfiantza eman behar diogu bertsolariari eta gidatu. Plazan adibidez, nik hagitz ongi pentsatzen dut zein gai ez ditudan jarriko, zenbait kontu ez ditudalako hauspotu nahi. Egiten dudana asumitzen dut.

### **Bertsolari frustratua da gai-jartzailea?**

Biziki zabaldua dagoen ustea da. Sor-kuntza mota ezberdina dela errango nuke. Nik ez dut jende aurrean kantatzea atsegin, baina bertsolaritza aunitz gustatzen zait. Bertso-eskolara joaten segitzen dut astero, eta bertan ere gaiak jartzen aritzen naiz. Azken batean, saio bat egin dadin, geurea paper garrantzitsua da. Epaileak ere hor daude, lan handia eginez eta kritiken entsaladaren parte izaten. Nik momentuz ez dut nire burua hor ikusten. Oso lan arduratsua iruditzen zait gai-jartzailearena.

### **Esaiguzu bat: zein gai jarriko zenuke gustura?**

Oraintxe bertan, honakoa: "Irun eta Hendaia arteko kontrol arrazistak kendu dituzte". Ohitu egin gara mugak edukitzera, eta ez luke hala beharko. Egin dezagun kritika. ●

# Polemika baten antzutasun jasanezinaz

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**S**teve Lacy abeslariari duela hilabete batzuk gertatu zitzaiena garaiaren sintoma da: sekulako arrakasta lortu du TikTok bere kanta batek, edo, bueno, kanta baten zatiak, plataforma horretan bideo laburrak baitira nagusi. Saldu zituen sarrera guztiak iazko urte amaierako biran, baina kontzertu batean bere *hit* nagusia kantatzen ari zela, publikoak poltsikoan sartuta –izan ere, letra hitzez hitz kantatzen ari ziren–, fama biralaren alde lakarrak urratu zion aurpegia. Bat-batean, denak isildu zitzaizkion muturren aurrean. Kanta osotik TikTok ikusitako minutua besterik ez zuen ezagutzen publikoak.

Kontu isolatua balitz. Baina keba. Musika, albisteak, telebista-saioak, ia dena zatika eta testuingurutik aterata jaten dugu azkenaldian; eta gure iritzietako asko dira, gutxi gorabehera, zopa argal horrek elikatutako gorputzaren puzkerrak. Gainera, aire delizius horiek espulsatzen ditugu posizio trinko eta ñabardurarik gabek algoritmikoki lehenesten dituzten plataformetan. Beraz, dena nahiko desastre ateratzeko moduko osagaiak dabilta, ejem, airean.

Konkretuki, joan den astean, Edurne Azkarate aktoreari tokatu zaio polemikaren zurrunbiloan egotea. Hala Bedin egin dioten elkarrizketako klip batean lehen mailako eta bigarren mailako euskaldunehizketan agertu da, gipuzkoarrak aipatu ditu, pribilegioak, periferia... eta han –alegia Twitterren-bazirudien hirugarren gerra karlista piztu behar zela Saudi Arabia eta Barduliako Emirerri Batuen artean. Elkarrizketak osorik entzutea litzateke miñoen eta mikelteen arteko balizko lubakien aurkako antidotorik onena, 35 minutu besterik ez baitu irauten. Eta azaltzen dituen gauzak, niri behintzat, zentzuzkoak eta interesgarriak iruditu zaizkit. Baina elkarrizketa osoak lehen hiru



egunetan 700 bat ikustaldi izan ditu. Twitterreko minutu bateko bideoak, berriz, ia 33.000.

Eta a ze festa sortu dena azken hori aitzakia hartuta “euskaldun pribilegiatuen” kontura: egon da adierazi duenik Donostia euskararen zentroetako bat dela –erabilera %15ean dago, baina zertarako ikerketa soziolinguistikokoak, iritzi erromesak bota baldin baditza kegu–; egon da kexatu denik lanpostu publiko guztietan euskara eskatzen omen delako –eskatu, eskatzen dugu, noski; administrazioak ez ordea, eta hark debaka okela gai horretan–; egon da, inklusio, jendeari Martxelo Otamendirekin kafeak hartzea leporatu dionik –bide batez, arrazoi eman behar diot beste behin, On Martxelo: ondo egiten du berorrek numantinoki eusten Twitterren sartu gabe, disgustuak besterik ez ditugu azkenaldian deabruzko txio-kiñ horretan–.

Polemika honek, portzierto, funtzionatuko luke arte garaikideko instalazio bezala. Alegia, beste artistek eta mun-


dutxo horretan zeozer pintatu nahi dutenek bakarrik komentatu duten zerbait izan da. Guk egosi eta guk jan dugun enegarrenkeria horretan gauza bakarra baitago jokoan: euskarazko azpi-sistema kulturean nor posizionatzen den ze lekutan. Eta antza denez, papur horiek jaten itsututa, dagoeneko prest gaude hizkuntz eskubideen alorrean egindako konkista sozial eskeletikoak ere pribilegio gisa berrinterpretatzeko.

Eztabaida probintziano horietan A edo B esanez gabiltzan bitartean, indarrean diren hizkuntza-politikez ez dugu aspaldian hitz erdirik esaten. Ez dakigulako zertan diren ere. Eta batez ere, ez daukagulako idortuta dagoena iraultzen hasteko tresnarik –eta gogorik?–. Euskaldun gisa bizi ditugun desparekotasunen kausa nagusiei begiratu ordez, ondorioetan iraulka ibiltzea da hau-tua. Terminologia politiko zail-itxurako bat erantsita, hori bai: ez dezatela esan gure inoperantzia erradikal-plantarik ez dugunik. ●

Euskara ofiziala ez den lekuetan,  
euskara ikasten ari diren

**85 LAGUNEK**

jasoko dute  **ARGIA** doan



**ZUK ERE, LAGUNDU  
EUSKARA ZABALTZEN  
EGIN ZAITEZ  ARGIAkoa**  
[www.argia.eus/eginargiakoa](http://www.argia.eus/eginargiakoa)



Artikulu hauek erosita  
ekarpen ekonomikoa  
egingo diozu Bilboko  
**Mbolo Moye Doole**  
elkarteari.

Prezioa **32,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan  
**40€**-tik gorako erosketetan. Erosketak  
**BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus)

(+34) **943 37 15 45**